

## Unibertsitateko Hezkuntza Eraldatzailea Helburu

UPV/EHU<sup>n</sup> 2006–2012 urteetan  
Garapenerako Lankidetzaren inguruan  
egindako Karrera Amaierako Proiektuei  
buruzko txostena



- IZENBURUA: Unibertsitateko Hezkuntza Eraldatzailea Helburu - UPV/EHUn 2006-2012 urteetan Garapenerako Lankidetzaren inguruan egindako Karrera Amaierako Proiektuei buruzko txostena.
- ERREDAKZIOA: Unai Villena e Itziar Lekanda.
- BERRIKUSKETA: Aitor Gómez, Izaro Basurko, Joseba Sainz de Murieta, Koldo Redondo, Monica Oyarzábal y Saioa Bacigalupe.
- ITZULPENA: ISF-MGI itzulpen-taldea
- ARGITARATUA: Ingeniería Sin Fronteras País Vaco - Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI)  
info.bilbao@euskadi.isf.es  
donostia@euskadi.isf.es  
www.euskadi.isf.es  
CIF/IFK: G-48699045
- FINANTZAKETA: Bizkaiko Foru Aldundia - Diputación Foral de Bizkaia



EHuko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa




- MAKETAZIOA: Dr. Drumen
- IMPRIMATZEA: Lankopi S.A.
- LEGE-GORDAILU: BI-1629-2014

Bilbao, 2014



Creative Commons 4.0 Litzentzia



**LABURPENA**

ISF-MGI elkarteak, azken urteotan, lan handia egin du irakaskuntza teknikoetan, arkitekturan eta ingeniartzetan, Garapenerako Lankidetzaren inguruko karrera amaierako proiektuak eta lan akademikoak bultzatzeko eta, hala, UPV/EHUn Garapenerako Lankidetzaren eremuko Karrera Amaierako Proiektuen Programa finkatzeko. Bada, esku artean duzun argitalpen hau lan horretako urrats bat da. Bi helburu ditu: batetik, UPV/EHUn 2006-2007 ikasturtean Programa abian jarri zenetik izandako eskarmentua jasotzen du eta, bestetik, unibertsitatea garapenerako lankidetzarekin eta gizarte-eraldaketarekin lotu nahi duten eragile guztientzako erreferentziazko lana izan nahi du.

Txosten hau, gainera, une berezian heldu da; Boloniako Plana oraintxe ari da ezartzen, Goi Mailako Hezkuntzarako Europako Espazioak hala aginduta, eta ondorioz, Karrera Amaierako Proiektuetatik (KAP) Gradu Amaierako Lanetara (GAL) igarotzeko trantsizioa gertatzen ari da. Trantsizio horrek lan akademikoen izena aldatu du, bistakoa denez, baina horrez gain, oraindik ere ikusteko dago zer nolako aldaketak eragingo dituen beste alderdi batzuetan; hala lan horien irismenean, lanok egiteko epeetan eta araudi espezifikoetan. Gaur egungo trantsizioaren eraginak zailak dira aurreikusten, baina hala eta guztiz ere haiek kontuan hartzen saiatu gara. Eta, nolana ere, txosten hau egiten parte hartu dugunok pentsatzen dugu eduki hauek lagungarri izango direla Unibertsitatean hezkuntza eraldatzailea sustatu nahi duen ororentzat, ikasketa-plan eta titulazio zehatzetatik haratago.

2006-2007 eta 2011-2012 ikasturteen artean, Programaren barruan, UPV/EHUko ikasleek garapenerako lankidetzaren inguruan egindako Karrera Amaierako Proiektuen (KAP) ikerketa da argitalpen honen muina, eta egiazko ekarpena. Hala ere, txosten hau ez da KAPen lagin bat analizatzera mugatu; kasu-ikerketa aurrez aurretik, Garapenerako Unibertsitate Lankidetzara (GUL) zer den azaltzen da, nola gauzatzen den UPV/EHUn, eta Giza Garapenerako Teknologiak (GGT) zer diren ere azaltzen da labur-labur. Hala, esparru jakin bat definitzen da, eta testuinguru horretan kokatzen dira garapenerako lankidetzaren inguruko Karrera Amaierako Proiektuak, Garapenerako Unibertsitate Lankidetzarako lanabes gisa; horien bitartez, teknologiaren beste ikuspegi bat sustatu nahi da, eta unibertsitateko komunitatean kontzientzia kritikoa sorrarazi. Aldi berean, proiektuok elkarrekin lan egitea sustatzen dute, eta unibertsitatearen eta bestelako gizarte-erakundeen arteko sareak sorrarazten dituzte. Iparraldeko ingurune hurbileneko erakundeekin, zein Hegoaldean laguntzen diren herrialdeetako erakundeekin.

Txostena interesgarri suertatuko zaizuela espero dugu. Eskerrak ematen dizkizuegu txostena prestatzen lagundu diguzuen pertsona eta erakunde guztioi, zuen laguntzarik gabe ezinezkoa izango bailitzateke txosten hau egitea. Txosten hau zeuena ere bada; eskerrik asko guztioi.

<b>TXOSTENAREN EDUKIA</b>	<b>1</b>
Taulen aurkibidea	4
Irudien aurkibidea	4
Grafikoen aurkibidea	4
Txostenean agertzen diren laburdurak eta siglak	5
<b>1 / SARRERA</b>	<b>6</b>
Txostenaren egilea: Ingenieria Sin Fronteras País Vasco - Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI)	8
Txosten honen aurrekariak, justifikazioa eta helburuak	10
<b>2 / GARAPENERAKO UNIBERTSITATE LANKIDETZA (GUL)</b>	<b>12</b>
GULen esparru orokorra	14
GUL UPV/EHUn	16
<b>3 / KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUAK UPV/EHUREN GARAPENERAKO UNIBERTSITATE LANKIDETZARAKO LANABES GISA</b>	<b>22</b>
Garapenerako Lankidetzaren inguruko Karrera Amaierako Proiektuen Programa UPV/EHUn	24
UPV/EHUn Garapenerako Lankidetzaren inguruko Karrera Amaierako Proiektuen Programan ISF-MGIk izandako parte-hartzea	25
ISF-MGIren ikuspegia Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAPen inguruan	27
Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAPen Programan parte hartzen duten aktore eta prozesuak	29
<b>4 / KASU-IKERKETA: 2006–2012 URTEETAN ZEHAR UPV/EHUN GARAPENERAKO LANKIDETZAREN INGURUAN EGINDAKO KAPAK</b>	<b>32</b>
Ikerketarako erabilitako metodologia	34
Ikasleek Programan izandako parte-hartzearen gaineko aipamen orokor batzuk	34
Ikasleei egindako galdetegiaren emaitzak	39
Irakasleei egindako elkarrizketen emaitzak	44
Ikasle, irakasle eta GGKE-ekin izandako esperientzia-tailerren emaitzak	49

## 5 / ETORKIZUNEAN PROGRAMA HOBETZEKO ONDORIOAK, GOMENDIOAK ETA JARDUERA- ILDOETARAKO PROPOSAMENAK

54

Programaren funtzionamenduaren inguruko ondorioak, gomendioak eta lan-ildoak

56

Programako trebakuntzaren inguruko ondorioak, gomendioak eta lan-ildoak

58

Programako genero-ikuspegiaren inguruko ondorioak, gomendioak eta lan-ildoak

59

Programan sarean lan egitearen inguruko ondorioak, gomendioak eta lan-ildoak

60

## BIBLIOGRAFIA

61

## ERANSKINAK

63

I. ERANSKINA: Ikasleei eginiko inkestaren galdera-sorta eta burutu diren KAPei buruzko oinarritzko informazioa


64

II. ERANSKINA: Irakasleekin egindako elkarrizketetako galdetegia eta egindako elkarrizketen inguruko oinarritzko informazioa

72

III. ERANSKINA: Esperientzia-tailerretako programak eta bakoitzean landutako gaien laburpena

74



## TAULEN AURKIBIDEA

- 28 **1. Taula:**  
GGKE-en eta unibertsitateen artean kolaboratzeko moduak.
- 35 **2. Taula:**  
UPV/EHUko ikasleriaren banaketa irakaskuntza teknikoetan eta zenbait gradutan, sexuen arabera (UPV/EHU, 2012)
- 36 **3. Taula:**  
UPV/EHUko IIPren banaketa laneko kategorien arabera, sexuka berezita (UPV/EHU, 2012)
- 38 **4. Taula:**  
Garapenerako Lankidetzaren inguruan KAP zein herrialdetan egin diren, eta herrialde bakoitzean zenbat ikaslek parte hartu duen.
- 40 **5. Taula:**  
Gauzatu diren Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAPetako tutoretza teknikoez arduratu diren pertsonak zein departamendutakoak diren.
- 69 **6. Taula:**  
2004/2005 eta 2012/2013 ikasturteen artean UPV/EHUn egindako Karrera Amaierako Proiektuak Garapenerako Lankidetzan inguruko oinarrizko informazioa.

## IRUDIEN AURKIBIDE

- 29 **1. Irudia:**  
Garapenerako lankidetzaren inguruko programan parte hartzen duten aktoreak
- 30 **2. Irudia:**  
ISF-MGIk garapenerako lankidetzaren mugimenduaren eta unibertsitate komunitatearen artean egiten duen zubi-lana
- 30 **3. Irudia:**  
Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAPetan parte hartzen duten aktoreen mapa

## GRAFIKOEN AURKIBIDE

- 36 **1. Grafikoa:**  
GLKAP egin duen ikasleria, sexuen arabera sailkatuta.
- 37 **2. Grafikoa:**  
Programan parte hartu duen ikasle kopuruaren bilakaera.
- 37 **3. Grafikoa:**  
Programan parte hartu duen titulazio desberdinetako ikasle kopurua.


- 39 **4. Grafikoa:**  
 Proiektuen gaur egungo egoera, haien eraikuntza edo gauzatzeari dagokionez.
- 40 **5. Grafikoa:**  
 Tutore teknikoak emandako laguntzaren balioespena.
- 41 **6. Grafikoa:**  
 Proiektuaren lurraldean egon ondoren EAEko GGKEak emandako laguntzaren balioespena.
- 41 **7. Grafikoa:**  
 Hegoaldeko gizarte-erakundeak proiektuaren lurraldean eginiko egonaldian zehar emandako laguntzaren balioespena.
- 42 **8. Grafikoa:**  
 ISF-MGIk emandako trebakuntzaren inguruan ikasleek egindako balioespena.
- 43 **9. Grafikoa:**  
 Programan parte hartu duten ikasleek GLKAP egin ondoren Garapenerako Lankidetzarekin izan duten lotura.

## TXOSTENEAN AGERTZEN DIREN LABURDURAK ETA SIGLAK

AZP	Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala
EUEB	Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Batzarra
GGKE	Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea
GGT	Giza Garapenerako Teknologia
GH	Garapenerako Hezkuntza
GHEE	Goi-mailako Hezkuntzako Europako Espazioa
GLGrAL	Garapenerako Lankidetzaren inguruko Gradu Amaierako Lana
GLKAP	Garapenerako Lankidetzaren inguruko Karrera Amaierako Proiektua
GrAL	Gradu Amaierako Lana
GUL	Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren
GULE	Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren Estrategia
IIP	Irakaskuntza eta Ikerkuntzako Pertsonala
ISF-MGI	Ingenieria Sin Fronteras del País Vasco-Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza
KAP	Karrera Amaierako Proiektua
MAL	Master Amaierako Lana
NHEUB	Nazioarteko Harremanetarako Espainiako Unibertsitate Batzordea
UPV/EHU	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea







# 1 / SARRERA



## 1 / SARRERA

**TXOSTENAREN EGILEA: INGENIERÍA SIN FRONTERAS PAÍS VASCO - EUSKAL HERRIKO MUGARIK GABEKO INGENIARITZA (ISF-MGI)**

Ingeniería Sin Fronteras País Vasco - Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza (aurrerantzean, ISF-MGI) Unibertsitate Elkartea eta Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea da, 1994an sortua. Hainbat diziplinako irakasle eta ikasleek osatzen dute, eta gaur egun, Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoan eta Donostiako Eskola Politeknikoan ditu egoitza aktiboak (biak EHUkoak). EHUko beste fakultate batzuetan eta EAEko beste unibertsitate batzuetan ere lantaldeak ditu. Egoitzak unibertsitatean edukitzeaz gainera, ISF-MGIk hantxe egiten du lanik gehiena, gizarte-eragile aktibotzat hartzen baitu unibertsitatea; ISF-MGIrentzat, lan- eta hezkuntza-espazio horretantxe sortu behar du eztabaidak, espiritu eraldatzaileak, eta eragile guztien parte-hartzeak, gizarte zibil barneratzailea eraiki nahi badugu.

ISF-MGIko partaideok seguru gaude honetaz: Giza Garapenerako Teknologiaren<sup>1</sup> (GGT) ikuspegitik, teknologiaren onurak guztiontzako eskuragarri jartzera bideratuta dauden proiektuei esker, pertsonen ahalduntzea lor dezakegu, baztertuta daudenen ahalduntzea bereziki. Horregatik, elkartea osatzen dugunontzat garrantzitsua da gizartearengan eragina izatea, eta sensibilizazioa lantzea, teknologiak sortzen dituen gizarte- eta ingurumen-eraginaren inguruan. Beraz, elkartearen lana, neurri handi batean, Giza Garapenerako Teknologien alorrean Sensibilizazioa eta Garapenerako Hezkuntza<sup>2</sup> (GH) lantzerantz bideratzen da.

ISF-MGIk gizarteko erakunde eta mugimenduekin esku hartuta lan egiten du eta, hala, unibertsitateari orientatzaile-eginkizuna eman nahi dio berriro; horretarako, hausnarketarako guneak irekitzen ditu, iraunkortasuna ahalbidetzeko eta bizitza duin unibertsala lortzeko hiritarrek zer nolako jokabideak garatu behar dituzten aztertzeko. ISF-MGI Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko kide da eta, horri esker, errazagoa da Koordinakundeko 84 elkartearen eta EAEko unibertsitate-kolektiboaren arteko loturak sortzea.

Unibertsitateko ikaslez osatutako boluntario-talde batek ISF-MGI elkartea sortu zuen, eta Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoan lehen Garapenerako Lankidetzaren Sarrera Ikastaroa antolatu zuen; horietan izan ziren elkartearen lehen urratsak. Garai hartan, Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegi ez zen ia existitu ere egiten, eta ikasketa teknikoetan ia ez zegoen etikarekin, ardura partekatuekin, edo zientzia eta teknologiak gizartearekin izan ditzakeen harremanei buruzko edukirik. Zientzia eta teknologiaren alorreko genero-harremanetan zegoen berdintasun-eza ere ez zen aipatzen. ISF-MGIk, hastapen haietan, alderdi horiek jaso zituen, eta orduz geroztik EAEko unibertsitate-ikastetxe teknikoetan Garapenerako Hezkuntzan egin duen lana hedatu eta indartu egin da. Gaur egun, lau lan-ildo hauen inguruan antolatuta du jarduerak (adibide gisa, ildo bakoitzeko jarduerak finkatu edo aipagarrienak ere aipatuko ditugu):

<sup>1</sup> *Giza Garapenerako Teknologia* Amartya Sen-en Giza Garapeneraren paradigman oinarritutako kontzeptu bat da, eta ezagun egin zen 2001ean Nazio Batuen Erakundeko Garapenerako Programak bere giza garapenerari buruzko urteroko txostenean aztertu zuenean pertsonen nola garatu eta erabili dezaketen teknologia beren bizimodua hobetzeko.

<sup>2</sup> Hegoa-ren "Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo" lanean (Pérez de Armiño, 2000) honelaxe definitzen da *Garapenerako Hezkuntza*: *hezkuntza prozesu dinamiko, interaktibo eta parte-hartzailetzat hartzen duen ikuspegi da. Haren arabera, hezkuntzak helburu hauek ditu: pertsonen trebakuntza integrala, haiek kontzientziaztea eta garapeneraren eta Iparralde eta Hegoaldearen arteko berdintasun ezaren jatorri lokal eta globalak ulertaraztea, eta lan parte-hartzaile eta eraldatzailearen aldeko konpromisoa bultzatzea.*

### 1. Garapenari, Lankidetzari eta Giza Garapenerako Teknologiai buruzko trebakuntza.

- “Garapenerako Lankidetzarako Sarrera Ikastaroak”, urtero antolatzen dira 1994az geroztik.
- “Garapena, Lankidetzeta eta Teknologiai buruzko mintegiak”, urtero antolatzen dira 1999az geroztik.
- “Teknologia, Garapena eta Gizarteari buruzko jardunaldiak”, 2009tik 4 edizio egin dira.

**2. Sentsibilizazio eta gizarte-mobilizaziorako ekintzak,** ekoizpen- eta kontsumo-eredu globalarekin lotuta dauden giza eskubideen urraketak ezaqutzero emateko eta, hala, euskal unibertsitate-kolektiboa eta gizarte zibila mobilizatzeko.

- Eguzki sukaldaritzaren eguna -8 edizio-.
- “Desazkundera eta Bizitza Ona” jardunaldien antolakuntzan parte hartzea, beste elkarte eta gizarte-mugimendu batzuekin batera -3 edizio-.
- Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen bitartez, “Zero Pobrezia” kanpainako ekintzak antolatzen parte hartzea -2005ez geroztik-.
- “Practica L’OFF: Hiperkontsumo gutxiago, giza eskubide gehiago” kanpainako ekintzak, hiru ardatzen inguruan: ura, energia eta elikadura-burujabetasuna (zineforumak, hitzaldiak, kaleko ekintzak, munduko egunak) -2010etik-.

**3. Garapenerako Lankidetzaren inguruko Karrera Amaierako Proiektuak,** ohiko KAPen ordez, Garapenerako Hezkuntza eta GUL lantzeko, EHUKo Garapenerako Lankidetzeta Bulegoarekin batera lan eginez eta hura lagunduta. Izan ere, 2006-2007 ikasturtean Bulegoak aukera eman zuen KAPak egiteko *Garapenerako Lankidetzaren inguruko Karrera Amaierako Praktika eta Proiektuak Programaren* barruan.

- EAEko GGKE-etatik eta Hegoaldeko herrialdeetako gizarte-erakundeetatik datozen KAPetarako proposamenak kudeatu eta koordinatzea.
- Era horretako KAPetan parte hartzen ari diren edo parte hartu nahi duten ikasle eta irakasleei arreta eta aholkua eskaintzea.
- Irakaskuntza teknikoak ematen dituzten EHUKo zentro guztietan hitzaldi informatiboak antolatzea, Programa ezaqutzero emateko.

**4. Garapenerako ikerkuntza eta eragin politikoa unibertsitatearen alorrean,** Horretarako, EHUKo irakasle ikertzaileen eta beste unibertsitate batzuetako erakunde eta ikerketa-taldeen (batez ere Latinoamerikakoak) arteko loturak eta kolaborazio-guneak sortu eta sustatzen dira. Halaber, giza garapena bultzatzeko ikerketa-lanak sustatzen dira, eta euskal unibertsitateek Garapenerako Unibertsitate

## Lankidetzaren alorrean ezartzen dituzten politiketan eragiten saiatzen da.

- “Introducción de la cocina solar en la Isla de La Española”. EHUko Lankidetzeta Bulegoaren laguntzaz 2004-2005ean egindako ikerkuntza-proiektua.
- “Análisis del Potencial de Colaboración entre las Escuelas de Ingeniería de la UPV/EHU y las ONGD de la Comunidad Autónoma del País Vasco” ikerkuntza-proiektua, 2007-2008 ikasturtean EHUko Lankidetzeta Bulegoaren laguntzarekin egina.
- 2011-2012 ikasturtean Iniciativas de Cooperación y Desarrollo-k egindako “La incidencia política: una mirada desde la universidad” diagnostikoa egiten parte hartzea.
- Jardunaldi eta unibertsitate-biltzarretan komunikazioak aurkeztea, EAEn zein Estatuan. Hauek dira azkenetako batzuk: “Unibertsitatea eta Garapenerako Hezkuntza” jardunaldiak, 2012, Iruñean; “Irakaskuntza Esperientzien Elkartrukerako Jardunaldiak” 2013n, Donostian; “Congreso Cooperación Universitaria al Desarrollo” 2013an Valentzian.
- EHUko Lankidetzeta Kontseiluan parte hartzea -2009an sortu zenetik-.

## TXOSTEN HONEN AURREKARIAK, JUSTIFIKAZIOA ETA HELBURUAK

2009an, ISF-MGIren plangintza estrategiko eta hausnarketa-prozesu baten barruan, elkarreak sortu zenez geroztik unibertsitatean egindako lanaren sistematizazioa egin zen<sup>3</sup>. A través de esta sistematización se pudo elaborar la espiral de la historia de la asociación y clarificar la situación de aquel presente, además de vislumbrar el camino por el que avanzar en un futuro próximo con las acciones de ED dentro del marco de la Educación Superior.

Sistematizazio horren bitartez, elkarreak bere historian zehar egindako ibilbidea ezaigutu zuen, eta une hartako egoera argitu. Gainera, etorkizun hurbilean goi-mailako hezkuntzaren barruan Garapenerako Hezkuntzara bideratutako ekintzekin zein bidetik jo behar zuen erabaki ahal izan zuen.

Urtebetez hausnartu eta eztabaidatu ondoren, ondorioztatu zen ISF-MGIk 1994az geroztik EAEko unibertsitateetan lan izugarria egin arren, elkarrea sortu zenean konpondu nahi ziren arazoek bere horretan irautea zutela 16 urteren ondoren, 2010ean: beste hainbat arazoren artean, irakaskuntza teknikoetako programetan gizarte- eta ingurumen-gai oso gutxi lantzen ziren, gaur egungo ekoizpen- eta kontsumo-ereduari lotutako kalteen inguruko gizarte-kontzientzia murrizta zen, eta garapena prozesu ekonomiko huts gisa baino ez zen ikusten. Gainera, eguneroko lanean, elkarre barrukoan zein kanpora begira egindako ekintzetan, genero-ikuspeirik ez edukitzeak ere kezka ekarri zuen.

<sup>3</sup> Sistematizazio hori Circulo Solidario eta Iniciativas de Cooperación y Desarrollo-INCYDE erakundeek sustatu zuten *Tejiendo retos a partir de nuestras prácticas de Educación para el Desarrollo* izeneko proiektuaren baitan. Proiektu haren bitartez, 2010-2012 bitartean esperientziak sistematizatu ziren lau eremu hauetan (bakoitza GGKE desberdin batekin): antolakuntzako egitura eta kultura (Setem Hego Haizea-rekin), metodologiak eta berrikuntza (Circulo Solidario Euskadi-rekin), Garapenerako Hezkuntzako produktuak (Euskadi Cuba-rekin), eta eragin politikoa unibertsitatean (ISF-MGIrekin). [Hemen eskuragarri: <http://www.circulosolidario.org/cas/site/proyectos.asp?m=3&sm=&idSeccion=207>, azken kontsultaren data 2013/09/15]

Horrelaxe sortu zen, beraz, "Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren EAEko Irakaskuntza Teknikoetan" proiektua. Hain zuzen ere, elkarrekin arretian aipatutako lau lan-ildo hauek jorratuta hutsune horiek betetzea du helburu:


1. **Trebakuntza:** EAEko irakaskuntza teknikoaren eskaintzen duten unibertsitate-zentroetan Garapenerako Lankidetzaren inguruko trebakuntza zabaldu eta indartzea.
2. **Sentsibilizazioa:** EAEko irakaskuntza teknikoaren eskaintzen duten unibertsitate-zentroetan egiten diren sentsibilizazio-jarduerak zabaldu eta indartzea.
3. **Karrera Amaierako Proiektuak:** EHUko Garapenerako Lankidetzaren inguruko Karrera Amaierako Proiektuen Programa finkatzen laguntzea.
4. **Eragin politikoa unibertsitate-eremuan:** EHUko irakaskuntza teknikoetan Garapenerako Unibertsitate Lankidetzako politikak definitzen laguntzea, eta politika horiek ezar daitezkeen kolaboratzea.

Txosten hau III. lan-ildoan sartzen da; hots, EHUko Garapenerako Lankidetzaren inguruko Karrera Amaierako Proiektuen Programa finkatzen laguntzea du helburu<sup>4</sup>. Horretarako, Programa hedatu, koordinatu eta kudeatzearekin lotutako zenbait lan egiteaz gain, programak 2006-2007 eta 2011-2012 bitartean emandako emaitzak aztertzea proposatu zen; analisi hori txosten batean jaso, eta txosten hori gero EHUko unibertsitate-kolektiboan eta EAEko GGKE-en artean zabaltzeko konpromisoa.

Txostenean jasoko den Programaren sistematizazioa hausnarketarako lanabes gisa proposatu da; hots, ekimen horrekiko interesa duten pertsona eta kolektibo guztientzako material didaktiko eta pedagogikoa sortzeko modua izango da, bai eta datozen ikasturteetarako hobekuntzarako proposamenak prestatzeko ere. Sistematizazio horrekin prozesu dinamiko bat abian jartzea da asmoa, eta hemen aipatutako datuei ikasturte bakoitzaren amaieran jasoko diren datuak gehitzea; hala, tarteko diren eragileen esperientziak balioetsi ahal izango dira, ezarritako hobekuntzak berrikusi, eta unez unez sor litezkeen arazoetarako irtenbideak proposatu.

<sup>4</sup> Txostenean aurrerago deskribatuko dugu zehaztasunez, baina aipatzekoa da Programa hori berez programa zabalago baten parte dela; programa horrek "Garapenerako Lankidetzaren inguruko Karrera Amaierako Proiektuen eta Praktiken Programa" izena du eta UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2003ko maiatzaren 13an onartu zuen. Hari esker, ikasleek nahitaezko praktikak edo KAPak Hegoaldeko herrialdeetan edo lankidetzaren eragileen mesedetan egin ditzakete, eta esperientzia hori beren trebakuntza akademiko praktikoan sartu. [[http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p268-shocdct/es/contenidos/informacion/cooperacion\\_practicas\\_pfc/es\\_coopera/practicas\\_pfc.html](http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p268-shocdct/es/contenidos/informacion/cooperacion_practicas_pfc/es_coopera/practicas_pfc.html)], azken kontsultaren data 2013/09/15]





## 2 / GARAPENERAKO UNIBERTSITATE LANKIDETZA (GUL)



## 2 / GARAPENERAKO UNIBERTSITATE LANKIDETZA (GUL)

### GULEN ESPARRU OROKORRA

Apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak moldatu zuen Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Legeak aipatzen du lehen aldiz, hitzaurrean, Unibertsitateak balioen transmisore gisa duen papera, eta adierazten du Unibertsitateak bereziki zaindu eta bultzatu beharreko balio garrantzitsu batzuk daudela: elkarriketa eta bakearen sustapena eta herrien arteko lankidetzak. Halaber, nazioarteko lankidetzari eta elkartasunari buruzko 92. artikuluan hauxe adierazten du: *“Unibertsitate-komunitateko kidek nazioarteko lankidetzak eta elkartasun-proiektuetan parte hartzea sustatuko dute unibertsitateek. Horrez gain, elkartasuneko aurrerabiderako behar beharrezko diren bakearen kultura, garapen iraunkorra eta ingurumenarekiko errespetua sustatuko dituzten jardura eta ekimenak ahalbidetuko dituzte”*.

Lege horretan aipatzen denak Espainiako Estatuko unibertsitate askotan ordurako martxan zegoena berretsi baino ez zuen egin: garapenerako lankidetzaren alorreko lana. Lan hori hasia zegoen, eta oso modu desberdinean garatzen ari zen Espainiako unibertsitateetan; oro har, irakasleen trukerako programen bidez lan egiten zen, Hegoaldeko herrialdeetako unibertsitateekin kolaborazio jakin batzuk eginda, eta Pertsona edo departamendu zehatz batzuen ekimenez (Amiano eta Gutiérrez, 2013).

Hasierako jardura haiek bilakaturik joan ziren, kasu askotan, unibertsitateetako politika instituzional izateraino. Hala, gobernu-organismoek garapenerako lankidetzaren kontzeptua erantsi zuten beren estatutuetan, plan estrategikoak eta ekintza-planak garatu, eta egiturak sortu (bulegoak, zentroak, zerbitzuak), baliabide ekonomikoez eta giza baliabidez hornituak, garapenerako lankidetzaren alorrean lan egin ahal izan zedin.

Bilakaera hartan, EUEBek (Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Batzarrak) paper garrantzitsua bete zuen, hausnarketa eta konpromisorako dokumentu partekatuak garatu ziren esparru hartan; horien artean aipatzekoa da 2000. urteko Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren Estrategia (GULE), Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren lehen definizio politiko gisa, eta Espainiako Unibertsitateen Garapenerako Lankidetzarako Jokabide Kodea, 2006an onartu zena (Amiano y Gutiérrez, 2013).

GULeren arabera, Garapenerako Unibertsitate Lankidetzak unibertsitateek garapenerako prozesuetan laguntzea da, eta lankidetzak edo kolaborazio hori zentzurik zabalenean hartu behar da, alderdi hauek ere barne hartuta:

- Unibertsitate-erakundearen artean baino ematen ez den alde biko edo hainbat aldetako lankidetzak, unibertsitate bakoitzak esku artean dituen garapen-prozesuetara bideratzen diren esperientziak eta baliabideak trukatzeko.
- Unibertsitatearen eta beste eragile batzuen arteko lankidetzak, aldebikoa edo hainbat aldetakoa, garapenerako estrategiak eragin, sustatu eta laguntzeko.

Estrategian lau helmuza hauek ezartzen dira, eta horietara iristeko bete beharreko helburuak deskribatzen dira:



1. **Gutxi garatutako herrialdeetako bizi- eta lan-baldintzak hobetzea,** eta horretarako, hango unibertsitate-sistemak edo garapenerako ikerkuntza indartzea.
2. **Elkartasun-sentipena garatzea, eta kontsumo-ohitura, merkataritza eta ekoizpen bidezko eta arduratsuak sustatzea, garapeneraren ikuspegi iraunkorrean oinarrituta,** Horretarako, sentsibilizazio-programak behar dira, azpigarapeneraren arazoa eta haren ondorioak ezaqutzero emateko.
3. **Garapenerako lankidetzan diharduten eragileen arteko lanak koordinatzea,** Horretarako, unibertsitateen barruko eta arteko jarduerak eta beste eragileekin batera gauzatu beharrekoak bultzatu behar dira.
4. **Espainiako Unibertsitateen Garapenerako Lankidetzarako Programa Propioa,** finantzaketa-oinarri egonkorrak ezarrita.

Halaber, ahaleginak nagusiki Espainiako unibertsitate-sistemarako lehentasunezkoak diren gai, herrialde eta eremu estrategikoetara bideratzea proposatzen da. Estrategia ahalik eta eraginkorra izan dadin. Eta unibertsitateek bete ditzaketen funtzioen artean, gai-sorta hauek dira aipatzekoak:

- **Trebakuntza eta Hezkuntza,** eta horren barruan, giza baliabideen gaitasunak hobetzea eta hala, garapenerako estrategia zehatzak indartzeko, hasierako trebakuntza, garapenerako hezkuntza eta etengabeko trebakuntza lantzea. Horrekin batera, nola ez, Espainiako unibertsitateak berak ere barretik indartu egin beharko dira.
- **Baliabideak partekatuta, esperientziak partekatzea,** eta hala, nazioarteko komunitate zientifiko, akademiko eta profesionalak sortzea.
- **Gizarte-ingurunean eragitea,** gizarteak geroz eta gehiago eskatzen baitie unibertsitateei sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza lantzeko.
- **Garapenerako ikerketa:** arreta berezia eskaini behar zaio garapenari buruzko ikerketari, eta lankidetzeta-metodoen buruzko ikerkuntzari, bai eta garapeneraren helburu eta prozesuak landuko dituen ikerketa orori ere.
- **Teknologiaren transferentzia,** hots, unibertsitateek behar bezalako trebakuntza eskaini behar dute teknologia, garapen-programetan, tokian tokiko baldintzetara egokitu ahal izateko.

GULE sortu eta urte batzuetara, Espainiako unibertsitate gehienek Estrategiako puntu batzuk txertatuak zituzten beren eguneroko lanean, eta Espainiako Unibertsitateen Garapenerako Lankidetzarako Jokabide Kodea ezaqutzero eman zenean (Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Batzarreko -EUEB- Nazioarteko Harremanen Espainiako Batzordeak -NHEB- onartu zuen 2006an) lan hori are gehiago indartu zen. Jokabide-kodea Espainiako unibertsitateetan GULE martxan jartzeko lanabes gisa sortu zen; horretarako, unibertsitate bakoitzeko gobernu-organoei bat egin behar zuten harekin. Kode horretan definitzen dira, zehaztasun handiaqoz, Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren izaera, helburuak, unibertsitate-komunitatearen parte-hartzea, kontraparte diren erakundeekiko harremana, eta garapenerako lankidetzaren gizarte-ehunarekiko harremana (Amiano eta Gutiérrez, 2013).

Jokabide-kode horren arabera, Garapenerako Unibertsitate Lankidetzeta hauxe da: unibertsitate-komunitateak gauzatzen dituen jarduerak, egoera txarrean dauden herrialdeetako gizarte-eraldaketa bultzatzera

bideratuak, munduan bakea, ekitatea, giza garapena eta ingurumen-iraunkortasuna erdiesteko. Eraldaketa horretan, kodearen arabera, erakundeak eta alor akademikoak indartzeak garrantzia handia du.

Definizio zehatza alde batera utzita, esan dezakegu garapenerako unibertsitate lankidetzak finkatu egin dela pixkanaka Espainiako Estatuko unibertsitate gehienetan, joan den hamarkadako hasieratik hona. Hala, unibertsitateak lankidetzarako eragile gisa duen eginkizuna sendotu egin da (eta, ondorioz, unibertsitatea osatzen duten kolektiboen eginkizuna ere bai).

## GUL UPV/EHUN

UPV/EHUko garapenerako lankidetzak zer nolakoa den zehazki azaltzeko, bi analisi-eremu aztertuko ditugu: Unibertsitateko konpromiso instituzionalak batetik, eta bestetik, unibertsitatean dauden egitura eta eragileak, garapenerako lankidetzan jarduerak gauzatu eta ahalbidetzen dituztenak<sup>5</sup>.

Garapenerako lankidetzaren alorreko konpromiso instituzionalak dagokienez, UPV/EHUK hauxe adierazten du bere Estatutuetan, hitzez hitz: *"UPV/EHUko irakaskuntzak pertsonen beren ogibiderako prestakuntza eskaintzea du helburu, eta haien trebakuntza integrala bultzatzea:*

- *Ezagutza zientifikoak, teknologikoak, humanistikoak eta artistikoak eskaintzea,*
- *Komunikaziorako, talde-lanerako eta arazo konplexuak konpontzeko gaitasunak garatzea,*
- *Jarrera sortzailea, etengabeko eguneratzea eta profesionaltasun arduratsua sustatzea;*
- *Hori guztia espiritu kritikoz eta gizarte-sentsibilizazioaz egitea, giza garapen bidezko eta iraunkorrari dagokionez bereziki."*

Gainera, Estatutuetan UPV/EHUren izaera eta xedeak aipatzen dituen Lehen Tituluan esaten da Unibertsitateak bultzatu egingo duela nazioarteko trukea eta lankidetzak, eta aipamen berezia egiten dio garapenerako lankidetzari, honelaxe: *"Garapenerako Unibertsitate Lankidetzak aberastu egiten ditu, ikuspegi humano eta akademikotik, parte hartzen duten pertsonak, eta haiek osatzen dituzten unibertsitateak".*

Halaber, UPV/EHUK, 2007ko otsailaren 8an egindako Gobernu Kontseiluan, EUEBeko NHEBk onartutako Unibertsitateen Garapenerako Lankidetzarako Jokabide Kodearekin bat egitea erabaki zuen. Jokabide-kode horrek, besteak beste, hauxe proposatzen du:

<sup>5</sup> Atal horretan jasotako informazioaren zati bat UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoaren "Garapenerako Lankidetzak UPV/EHUn. O Diagnostikoa" (2012) izeneko dokumentutik atera da. Unibertsitatea garapenerako lankidetzari dagokionez zer nolako egoeran dagoen jakiteko egin zen dokumentu hori, eta hurrengo urteetarako estrategia bat zehazten laguntzeko.

1. Garapenerako Lankidetza unibertsitate-erakundearen eginkizun sozialaren parte gisa hartzea.
2. Trebakuntzan elkartasunezko balio unibertsalistak lantzea, gizarteen arazoei buruzko eztabaidetan balio horiek txerta daitezten eta, hala, ekitate, iraunkortasun eta giza eskubideekiko errespetu gehiago lortu ahal izateko.
3. Munduko leku batetik bestera, gizakien garapena zer nolako arazoei baldintzatzen duten ezagutu, ikertu eta hedatu dadin bultzatzea eta, hala, unibertsitateko komunitatea arazo horietaz jabetu dadin ahalbidetzea.
4. Garapenerako lankidetzara giza baliabide espezializatuak bideratzea, beste eragile instituzional eta sozial batzuekin batera lan eginda, lankidetzako proiektuak eta programak martxan jartzeko.
5. Unibertsitateko komunitatearen baitan elkartasun aktiboa eta lan boluntarioa sustatzea, batez ere ikasleen artean. Hain zuzen ere, ikasleek esparru espezifiko baten barruan boluntario gisa lan egitea ahalbidetu behar da, programa propioak garatuta, edo beste erakunde batzuetara bideratuta.

2011n, UPV/EHUren Unibertsitate Kudeaketa Hobetzeko Bigarren Programak<sup>6</sup> helburu gisa proposatu zuen unibertsitatearen funtzionamenduan pixkanaka Erantzukizun Sozialeko irizpideak kontuan hartuko dituen ikuspegi hartzea -iraunkortasuna, berdintasuna, elkartasuna eta garapenerako lankidetza-. Horretarako, unibertsitateak helburu espezifiko hauek txertatu ditu Garapenerako Lankidetzaren alorrean:

- UPV/EHUK beste unibertsitate batzuekin batera sarean gauzatzen dituen unibertsitate lankidetzarako proiektuetan erakunde gisa duen parte-hartzea indartzea.
- Graduko ikasleek garapeneraren inguruko gaietan duten trebakuntza hobetu eta indartzea, garapenerako lankidetzari buruzko ikastaro monografikoak egokituz goi-mailako hezkuntzaren espazio berrira.
- Unibertsitate-komunitateak garapenerako unibertsitate lankidetzako proiektuetan duen parte-hartzea indartzea.
- Graduko ikasleek garapenerako lankidetza proiektuetan praktikak egiteko aukera erraztea.

Unibertsitatearen konpromiso instituzionalarekin amaitzeko, UPV/EHUren 2012-2017 Plan Estrategikoan unibertsitatearen eginkizun sozialetan aipatu beharreko beste zenbait gairen artean, Gizarte Konpromisoari buruzko V. ardatzaren barruan proposatzen den 8. ekintzan, behar hau aipatzen da hitzez hitz: *"Lankidetzaren, berdintasunaren, boluntariorik eta jasangarritasun-egiturak indartzea, koordinazio-bitarteko berriak sortzea eta horiek unibertsitateko jarduerak guztietan aitortzea sustatuz"*.

UPV/EHUK **garapenerako lankidetzaren alorrean bere lana bideratzeko baliatzen dituen egitura eta eragileei dagokienez** hauexek dira garrantzitsuenak:

<sup>6</sup> UPV/EHU, 2011. 2011-2012 Jardueren Egitaraua. EHUko Argitalpen Zerbitzua.

- EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoa
- EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseilua
- Hegoa - Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua
- Garapenerako Lankidetzaren aldeko Unibertsitate Elkarteak eta Zentroetako eta Ikasleen % 0,7 Fondoak.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoa<sup>7</sup>, gaur egun Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetzari atxikia, UPV/EHUK 2001ean sortu zuen Garapenerako Unibertsitate Lankidetza sustatzeko. Lankidetza hori unibertsitate-komunitate osoak egiten duen elkartasunezko ahalegin bat da, laquntzen dituen gizarteetako ahalmenak indartzeko, unibertsitatearen eta hezkuntzaren alorretan bereziki. Bulegoaren helburua, beraz, UPV/EHUko unibertsitate-komunitatearen sektore desberdinek garapenerako lankidetzaren alorrean egiten dituzten ahaleginak koordinatu, bultzatu eta bideratzea da. Sortu zenetik, hainbat eratako jarduera multzo zabala gauzatu du, eta hauek dira nabarmenenak:

- Lankidetza beste erakunde eta organismo batzuekin batera bultzatzeko hitzarmenak lortzea.
- Garapenerako Unibertsitate Lankidetzako Ekintza eta Proiektuetarako urteroko diru-laguntza deialdi bat martxan jartzea.
- Ikerkuntza eta irakaskuntzako pertsonalari, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalari eta ikasleen elkartei aholkularitza tekniko eskaintzea, lankidetzako proiektuak eratzeraoan.
- Zabalkunde- eta sentsibilizazio-jarduera propioak.
- Beste unibertsitate batzuekin sarean lan egitea.
- Garapenerako lankidetzaren alorrean Karrera Amaierako Proiektuak eta unibertsitate-praktikak egiteko urteroko diru-laguntza deialdi bat martxan jartzea.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseilua<sup>8</sup> 2009ko uztailaren 22an egindako UPV/EHUREN Gobernu Kontseiluaren erabakiz sortu zen, garapenerako lankidetzaren alorrean unibertsitate-komunitateak lanerako, kontsultarako eta parte-hartzerako organo bat eduki zezan. Kontseilua administrazio eta zerbitzuetako pertsonalak (AZP) osatzen du batetik; bestetik, ikerkuntza eta irakaskuntzako pertsonalak (IIP), eta azkenik, ikasleriak. Garapenerako lankidetza-jarduerak finantzatzen ditu, eta haietan parte hartu; unibertsitate-komunitatearentzat irekita dauden bilera egiten ditu, eta ondorengo eskumenak dauzka:

- Unibertsitateen Jokabide Kodea Garapenerako Lankidetzaren alorrean ezar dadin sustatzea, eta praktikan jartze horretan laguntzea, hobekuntzarako proposamenak eginez eta kodea erabat garatzeko irizpideak proposatuz.

<sup>7</sup> Informazio gehiago Interneten eskuragarri helbide honetan: <http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p268-shocdhm/es/> [azken kontsultaren data 2013/09/15]

<sup>8</sup> Informazio gehiago Interneten eskuragarri helbide honetan: <http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p268-shconshm/es/> [azken kontsultaren data 2013/09/15]

- UPV/EHUK garapenerako lankidetzaren alorrean praktikan jarriko dituen plan, programa eta jarduerak prestatzeko proposamenak egitea.
- Garapenerako Lankidetzaren alorrean Unibertsitateen Jokabide Kodea eta haren inguruan abian jartzen diren unibertsitate-politikak ezartzerakoan, finkatutako helburuak bete diren eta zer nolako ekintzak gauzatu diren jakiteko segimendua eta ebaluazioa egitea.
- Nazioarteko Elkartasunaren alorrean eztabaida kritikoa bultzatzea.
- Beste erakunde eta gizarte-eragile batzuekin batera, garapenerako lankidetzarako jarduera bateratuak sustatzea.
- Unibertsitate-komunitateak garapenerako lankidetzaren alorrean garatutako jardueren berri ematea.



UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaz eta Kontseiluaz gain, EHUren garapenerako lankidetzaz ari garela, bada ezinbestean aipatu beharreko beste erakunde bat, ibilbide bikaina eta lan zorrotza egin duena: Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua. Hegoa Institutuak<sup>9</sup> giza garapena sustatzeko lan egiten du, eta bere helburu nagusia giza garapenerako eta lankidetzeta eraldatzailerako marko teorikoak, prozesuak eta estrategia alternatiboak eraikitzea, proposatzea, eragitea eta ezartzea da, pentsamendu kritikoa oinarrituta. UPV/EHUko hainbat ikastegi eta eskoletako ikerkuntza eta irakaskuntzako pertsonalak osatzen du, eta hainbat lan-eremu ditu (Dokumentazioa eta Trebakuntza, Ikerkuntza, Sentsibilizazioa eta Garapenerako Hezkuntza, Aholkularitza eta Kontsultoretza), Dokumentazio Zentro bat, sei ikerketa-ildo (eta ildo bakoitzeko ikerketa-talde bat), doktoretza-programa bat eta hainbat graduondoko ikastaro (hiru master ofizial eta *online* master bat, berezko titulua).

Garapenerako lankidetzarekin lotutako unibertsitate-elkarteak, nagusiki ikaslez osatuak, garrantzitsuak dira halaber EHUko Garapenerako Unibertsitate Lankidetzan. Munduko bidegabekeriaren inguruan pentsamendu kritikoa bultzatzeko gune dira, eta kolektibo, errealitate eta testuinguru heterogeneo eta anitzen gainean proiektzioa duten ideiak jaurtitzeko balio dute. Elkarre horietako sustraitu eta aktiboenetako bat ISF-MGI da<sup>10</sup>. UPV/EHU barruko garapenerako lankidetzarekin lotutako gainerako eragileei dagokienez, hainbat departamendu eta katedra aipa ditzakegu, sentsibilizazio-jarduerak antolatu edo halakoetan laguntzen duten eta garapenerako proiektuetan parte hartzen duten ikerkuntza eta irakaskuntzako pertsonala eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonala.


Eragile horien guztien lanak emaitza oparoa ematen du; UPV/EHUK berezko dituen egituren bitartez, hots, irakaskuntza eta ikerketako pertsonalaren, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren eta ikasleen


<sup>9</sup> Informazio gehiago Interneten eskuragarri helbide honetan: <http://www.hegoa.ehu.es/>

<sup>10</sup> ISF-MGIren jarduera kontsulta daiteke, batetik, web-orrian (<http://eusyadi.isf.es/>), elkarre-bizitzari buruzko blogean (<http://eusyadi.isf.es/blog/>) eta sare sozialetako profiletan: Facebook-en (<https://www.facebook.com/isf.mgi>) eta Twitter-en ([https://twitter.com/ISF\\_MGI](https://twitter.com/ISF_MGI))

bitartez, garapenerako lankidetzarako ekimen eta jarduera ugari jartzen da martxan UPV/EHU. Oro har, jarduera horiek hiru taldetan sailka daitezke:


- Unibertsitateko trebakuntza eta irakaskuntza jarduerak; besteak beste graduondoko ikastaroak (doktoretzak eta masterrak), graduoko dozentzia (graduoko ikasgaiak eta aukerakoak), praktikak eta Karrera Amaierako Proiektuak, eta garapenari eta nazioarteko lankidetzari buruzko ikastaro monografikoak. Azken horiek trebakuntza ez arautua dira.
- Garapeneko eta nazioarteko lankidetzako arazoekin lotutako ikerketa-lanak; besteak beste, gai horiekin lotutako doktore-tesiak, eta departamenduek, ikastegiek edo ikerketa-taldeek gauzatutako ikerketa-proiektuak.
- Zabalkunde eta sentsibilizaziorako jarduerak, besteak beste hitzaldiak eta mintegiak, erakusketak, zinema-proiektzioak eta dokumentalak, eta abar.











**3 / KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUAK  
UPV/EHUREN GARAPENERAKO  
UNIBERTSITATE LANKIDETZARAKO  
LANABES GISA**



### 3 / KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUAK UPV/EHUREN GARAPENERAKO UNIBERTSITATE LANKIDETZARAKO LANABES GISA

#### GARAPENERAKO LANKIDETZAREN INGURUKO KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUEN PROGRAMA UPV/EHUN

Garapenerako Lankidetzaren inguruko Karrera Amaierako Proiektuen programa UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak jarri zuen martxan, ISF-MGirekin koordinatuta, Ingeniaritza eta Arkitekturako ikasleek Karrera Amaierako Proiektua garapen eta lankidetzaren solidarioarekin lotutako gaien inguruan egin ahal izan zezaten. Programa hori Garapenerako Lankidetzaren inguruko Karrera Amaierako Proiektuen Programa eta Praktikak izeneko programa zabalago bateko parte da. Azken hori UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2003ko maiatzaren 13an, eta hari esker, ikasleek Hegoaldeko herrialdeetan egin ditzakete unibertsitatean nahitaez egin beharreko praktikak, edo lankidetzaren eragileen mesedetarako egin ditzakete Karrera Amaierako Proiektuak, esperientzia hori beren trebakuntza akademiko eta praktikoaren zati gisa hartuta<sup>11</sup>. Modalitate hauek bereiz daitezke:

- A) Modalitatea: Hegoaldeko herrialdeetan garapenerako lankidetzaren inguruko unibertsitate-praktikak egitea, osasunqintzako edo hezkuntzako ikasleek beren trebakuntza akademikoan eskuratutako elementu teoriko eta praktikoak bat egin ditzaten, errealitate soziala ebaluatzeko eta gizarte-eraldaketarako estrategiak planifikatzeko ahalmen gehiago izan dezaten eta,aldi berean, nork bere trebakuntzaren arabera dituen eginkizun profesionaletatik abiatuta, gizarteko arazoak prebenitu, murriztu edo konpon ditzan.
- B) Modalitatea: Karrera Amaierako Proiektua garapeneraren edo lankidetzaren alorrean egitea, Ingeniaritza eta Arkitekturako Unibertsitate Eskoletan eta Goi Eskoletan ikasketetan zehar ikasitako gutzia balia dadin GGKE-ek eta lankidetzako entitateek adierazten dituzten "arazo teknikoak" konpontzeko.

Programak honako oinarriak ditu:

- a) Garapenerako proiektuetan egiten diren praktika eta KAPak trebakuntzarako balio handikoak direla aitortzen du: Ikaskuntza berriek eta bestelako trebetasunak garatzeko aukerak eskaintzen dituzten esperientziak baliatuta, ikasleek prestakuntza akademiko eta profesional hobea lortzen dute.
- b) Ikasleek garapenerako lankidetzarako motibazio indartsua eduki behar dute: geure gizarteak baino zailtasun gehiago eta baliabide gutxi duten gizartei laguntzeko gogoia eduki behar dute, praktika edo KAP interesgarri edo emozioagarri batzuk egiteko baino gehiago.
- c) UPV/EHU eta garapenerako lankidetzako erakundearen arteko kolaborazioa sustatzen du, ikasleek egingo dituzten praktika eta KAPek arrakasta izango dutela ziurtatzeko, eta sentsibilizazio-jarduerek unibertsitate-komunitatean eragina izango dutela.

Programaren bitartez, UPV/EHUK instituzionalizatu egiten du halako praktiken eskaintza, haien iraunkortasuna bermatzen du, eta hezkuntzan duten eragina. Programak, beraz, aukera ematen die ikasleei garapenerako lankidetzan sartzeko, eta hala, unibertsitateak bere eginkizuna betetzen du; hots, munduko bidegabekeriez jabetutako profesionalak trebatzen ditu, gizartearen aurrerabidea oztapatzen duten arazoei buruz eztabaidatzeko gai direnak.

<sup>11</sup> Programa 2003/2004 ikasturtean martxan jarri bazen ere, lehen urteetan hezkuntza eta osasun adarretako ikasleek baino ez zuten parte hartu (irakasle-ikasleak, odontologia, medikuntza eta abar), praktiketako modalitatean. 2006/2007 ikasturtean hasi ziren lehen aldiz KAP egiten ikasketak teknikoetako ikasleak (ingeniaritzak eta arkitektura).

Programan parte hartu nahi duten ikasleek baldintza batzuk bete behar dituzte<sup>12</sup>; besteak beste, praktikak edo KAP egin aurretik, garapenerako lankidetzari buruzko oinarrizko prestakuntza jaso behar dute, eta ondoren, unibertsitatean Programa ezaqutzera emateko jardueraren batean beren esperientzia kontatuz parte hartzeko konpromisoa hartu behar dute.

Programan parte hartu nahi duten ikasleek prestakuntza jaso dezaten, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzarako Bulegoak hainbat ikastaro monografiko antolatzen ditu urtero Garapen eta Lankidetzaren inguruan, hainbat unibertsitate-zentrotarekin, Hegoa Ikastegiarekin, ISF-MGI eta beste zenbait euskal GGKErekin batera. Ikastaro horiek UPV/EHUren hiru campusetan eskaintzen dira<sup>13</sup>, eta zein titulaziotan ematen diren kontuan hartuta, edukiak egokitu egiten dira.

## **UPV/EHUN GARAPENERAKO LANKIDETZAREN INGURUKO KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUEN PROGRAMAN ISF-MGIK IZANDAKO PARTE-HARTZEA**

Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAPen Programa 2006/2007 ikasturtean martxan jarri zenetik, ISF-MGIk programa horretan izandako paperak bi osagai izan ditu. Batetik, GGKEak laguntzen ditu, beren lankidetzaproiektuetan edo antolakuntza-funtzionamenduan dituzten beharretatik, Karrera Amaierako Proiektu baten edo hainbaten bidez landu edo hobetu daitezkeenak identifika ditzaten, eta behar horiei erantzuteko gaitasuna duten ikasleekin harremanetan jartzen ditu. Halaber, proiektu horiek zuzenduko dituzten irakasleak aurkitzen laguntzen du, eta ikasleei aholku ematen die Karrera Amaierako Proiektua egiteko prozesu osoan zehar. Bestalde, Unibertsitatearen barruan trebakuntza eskaintzen du lankidetzaren eta giza garapenerako teknologien inguruan, KAPa Garapenerako Lankidetzaren alorrean egin nahi duten ikasleentzat, eta halako KAPak zuzendu nahi dituzten irakasleentzat<sup>14</sup>.

Programa indarrean egon zen lehen lau urteetan zehar (2006/2007, 2007/2008, 2008/2009 eta 2009/2010 ikasturteetan), ISF-MGIk Programa horretan kokatutako ekimen ugari jarri zuen martxan; bereziki, Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoan eta Donostiako Eskola Politeknikoan; izan ere, ikastegi horietan ISF-MGIk egoitzak ditu, eta boluntario aktibo gehiago. Elkarteko boluntarioek (ikasle eta irakasleek) koordinatu eta gauzatu zituzten jarduera horiek eta, oso motibatuta eta kausaren alde lan egiteko prest bazeuden ere, pertsonen errotazio handia zegoen, eta ondorioz, zailtasunak zeuden ISF-MGIren lanari urtez urte eusteko, eta Programa finkatzeko behar zen jarraipena lortzeko.

<sup>12</sup> Baldintza guztiak, eta Programari buruzko argibide guztiak kontsulta daitezke esteka honetan: [http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p268-shocdct/es/contenidos/informacion/cooperacion\\_practicas\\_pfc/es\\_coopera/practicas\\_pfc.html](http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p268-shocdct/es/contenidos/informacion/cooperacion_practicas_pfc/es_coopera/practicas_pfc.html) [azken kontsultaren data 2013/09/15]

<sup>13</sup> Ikastaro horiei buruzko informazio osatu eta eguneratua lor daiteke Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren web-orrian, esteka honetan: [http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p268-shocdct/es/contenidos/informacion/cooperacion\\_cursos\\_monografico/es\\_coopera/cursos\\_monograficos.html](http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p268-shocdct/es/contenidos/informacion/cooperacion_cursos_monografico/es_coopera/cursos_monograficos.html) [azken kontsultaren data 2013/09/15]

<sup>14</sup> ISF-MGIk trebakuntza-jarduera ugari antolatzen du ikasturte bakoitzean. Azken urteotan, urtero gutxienez *Garapenerako Lankidetzarako eta Giza Garapenerako Teknologietarako Sarrera Ikastaro* bi antolatzen ditu (UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak sustatutako Garapen eta Lankidetzari buruzko Ikastaro Monografikoen barruan sartzen dira), eta *Garapena, Lankidetzaren eta Teknologia buruzko Mintegi* bat <http://euskadi.isf.es/seminario/>; horiek guztiak baliozkoak dira Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAPen Programan parte hartu nahi duten ikasleentzako, oinarrizko trebakuntza gisa.

Muga horiek gainditzeko erabaki zuen antolakuntzak, hain justu ere, Programarako pertsona bat hartzea, ISF-MGIren barruan Programarekin lotutako lan guztiak koordinatzen zitzaizkien. 2011tik aurrera, diru-laguntzak etorri ziren Bizkaiko Foru Aldunditik eta UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegotik, garapenerako hezkuntzako proiektuak egiteko eta, horri esker, ISF-MGIko Garapenerako Hezkuntzako teknikari bat dauka, 2011/2012 eta 2012/2013 ikasturteetan eginkizun hauek koordinatzeaz arduratu dena:

- Lankidetzako KAPen Programa ezaqutza ematea ikasle-kolektiboaren artean, Ikerketa eta Irakaskuntzako Pertsonalean eta EHUko eskolako teknikoetako zuzendaritzetan, bai eta EAEko GGKE-etan ere
- Ikasturte akademikoan zehar Lankidetzako KAPen Programa kudeatu eta koordinatzea, hots: KAP egiten ari diren ikasleak artatu eta haien segimendua egitea, Programan parte hartzen ari diren GGKE-ekin batera Laneko Plana prestatzea, martxan dauden KAPen segimendua egitea eta amaitutako proiektuen datuak biltzea, Programa ebaluatzen ahal izateko
- Lankidetzaren inguruko KAPEi buruzko esperientzia-tailerrak antolatzea Programan parte hartzen duten eragileekin batera (ikasleak, irakasleak eta GGKEak)
- Garapenerako Lankidetzaren alorreko Karrera Amaierako Proiektuei buruzko web tresna bat sortzea, programa errazago kudeatu, ezaqutza trukatu eta tarteko diren eragileek sarean parte hartzeko
- “Garapenerako Lankidetzaren inguruko Karrera Amaierako Proiektuak” izeneko *online* ikastaroko edukiak sortzea
- 2006-2012 urteetan zehar Programa ebaluatzen txostena egitea
- Programan genero-ikuspegia txertatu eta zeharkako egitea<sup>15</sup>

ISF-MGIko 4 kidez osatutako talde egonkor batek (besteak beste, koordinazioaz arduratzen den teknikariak) aipatutako eginkizunak betetzeko lan egiten du, unibertsitateko Ikerketa eta Irakaskuntzako Pertsonaleko zenbait pertsonen laguntza eta kolaborazioarekin, eta Garapenerako Lankidetzaren Bulegoko teknikariek batera. Talde horrek irekita ditu ateak parte hartu nahi duen unibertsitateko pertsona ororentzat, eta 2013/2014 ikasturtean ere lanean jarraitzen du. Ikasturte honetarako eta hurrengoetarako honako helburu eta jarduerak programatu ditu:

- Lankidetzaren inguruko KAPen Programa kudeatu eta koordinatzen modu aktiboan laguntzen jarraitzea
- Ikasleek eta Ikerketa eta Irakaskuntzako Pertsonalak gehiago lagundu eta parte har dezaten sustatzea
- 2006-2012 urteetan lankidetzaren inguruan egindako KAPEi buruzko Esperientzien Txosteneko emaitzak ezaqutza ematea
- Garapenerako Lankidetzaren inguruko Karrera Amaierako Proiektuen Programa ezaqutza ematea gune hauetan:
  - ISF-MGIko Unibertsitatean egiten dituen jardueretan (Ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak, komunikazioak...)

<sup>15</sup> Antolakuntzako funtzionamenduan eta egiten diren jardueren guztietan genero-ikuspegia zeharka txertatzea ISF-MGIren ildo estrategikoetako bat da. KAPen programan zeharka txertatze hori nola gauzatzen ari den jakiteko, komunikazio hau kontsultatzea gomendatzen dugu: *Propuestas para la transversalización del enfoque de género en el Programa de Proyectos Fin de Carrera en Cooperación para el Desarrollo de la UPV/EHU*. Vanesa Calero, Sandra Fernández eta Unai Villenak aurkeztu zuten (guztiak ISF-MGIko kideak) Nafarroako Unibertsitate Publikoan antolatutako Garapenerako Hezkuntzari buruzko I. Jardunaldietan, 2012ko urrian. [Eskuragarri hemen: [http://www.unavarra.es/digitalAssets/184/184603\\_LIBRO\\_Actas-I-Jornadas-Universidad-y-EpD.pdf](http://www.unavarra.es/digitalAssets/184/184603_LIBRO_Actas-I-Jornadas-Universidad-y-EpD.pdf) azken kontsultaren data 2013/09/15]

- ISF-MGI gonbidatu duten ekitaldietan (biltzarretan, hitzaldietan, ikastaroetan...)
  - GGKE-en Koordinakundearen eta ISF-MGI partaide duten GGKE-en topalekuetan
  - UPV/EHUko hiru campusetako ikasle eta irakasleekiko bileretan
- 2011/2012 eta 2012/2013 ikasturteetan egin diren KAPEi buruzko Esperientzia Tailerretan jasotako hobekuntza-proposamenak gauzatzea
  - “Garapenerako Lankidetzaren inguruko Karrera Amaierako Proiektuak” *online* ikastaroaren lehen edizioa martxan jartzeko aurrerapausoak egitea
  - Programan genero-ikuspegia txertatu ahal izateko, besteak beste, erakunde feministekin harreman estuagoa egitea
  - ISF-MGIko Garapenerako Heziketa taldeak bultzatzen duen feminismo eta teknologien sarean parte hartzea

### ISF-MGIREN IKUSPEGIA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN INGURUKO KAPEN INGURUAN

Hainbat eta hainbat lan eta ikerketa aurkeztu dira nazioarteko biltzarretan, hala nola “*Engineering Education in Sustainable Development*” kongresuan Delft-en (2002), Bartzelonan (2004), Lyon-en (2006) eta Graz-en (2008), eta Estatuko zenbait kongresutan ere bai, besteak beste “*Universidad y Cooperación al Desarrollo*” kongresuan Valladoliden (2002), Murtzian (2004), Madrilen (2006), Bartzelonan (2008), Cadizen (2011) eta Valentzian (2013). Ikerlan horiek nazioarteko zein Espainiako teknologia-erakundeetan egin dira, eta guztiek partekatu dute ezaugarri bat: hezkuntzaren maila guztietan giza garapen iraunkorra txertatzeari buruzko eztabaida serioa sustatzea, eta eskola, komunitate eta unibertsitateetan estrategia, ekintza eta ekimenak ezar daitezen sustatzea.

ISF-MGIk ikuspegi hori partekatzen du, eta defendatzen du Unibertsitateak ezagutza sortzeko ardura duela, diziplina guztietan profesional onak trebatzekoa, gizartea hobetzen laguntzekoa eta, hori guztia, justizia sozialean eta ekitatean oinarritutako irizpide etikoen arabera egin behar dela. Horrenbestez, Unibertsitateak paper garrantzitsua bete behar du proposatzen duen ikerkuntzan eta eskaintzen duen trebakuntzan Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegia sustatzerakoan. Gaur egungo krisi-egoera honetan, berdintasun-eza geroz eta handiagoa da, eta gizarte-bazterkeria ere bai; horregatik ezinbestekoa da gazteek hiritar kritiko izateko behar dituzten ezagutza, ahalmen, trebetasun eta baloreak bereganatzea, halaxe lortuko baitute egungo gizarte “globalizatuetan” sortzen diren errokei aurre egitea.

Ikuspegi horrekin, ISF-MGIk “*Análisis del Potencial de Colaboración entre las Escuelas de Ingeniería de la UPV/EHU y las ONGD de la Comunidad Autónoma del País Vasco*” ikerkuntza-proiektua egin zuen 2007-2008 ikasturtean, EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren laguntzarekin<sup>16</sup>. Horren bitartez, egiaztatu ahal izan zen Euskal Autonomia Erkidegoan irakasten diren karreretako alor teknikoetako ikasgaietan (ikasgai ardatzetan, nahitaezkoetan eta aukera askekoetan) ez zela lantzen, adibidez, ingeniariartzak pertsonengan duen eragin desberdina, beste herrialde batzuetako ingurumenean duen eragina edo beste ohitura eta kultura batzuetan duena.

Halaber, garapenerako lankidetzaren alorrean Unibertsitate eta GGKE-en arteko kolaborazioa zein formatan

<sup>16</sup> Ikerkuntza-proiektuaren emaitzak Bartzelonan 2008an egin zen Unibertsitatea eta Garapenerako Lankidetzaren IV. Kongresuan aurkeztu ziren, komunikazio honetan: “*Análisis del potencial de colaboración entre las escuelas de ingeniería de la UPV/EHU y las ONGD de la CAPV*”. ISF-MGIko kide Joseba Sainz de Murieta, Xabier Lecanda eta Arantza Burgos izan ziren egileak.

gauza daitekeen ikertu zen. Forma horiek sakonki ikertu dira azken urteotan, eta taula honetan labur daitezke (Mataix & Sanchez, 2006):

También se analizaron las diferentes formas en las que puede materializarse la colaboración entre las Universidades y las ONGD en materia de cooperación al desarrollo, que han sido ampliamente estudiadas en los últimos años y pueden resumirse en la siguiente matriz (Mataix & Sanchez, 2006):

		UNIBERTSITATEA		
		Aktorea	Zerbitzuak ematea	Baliabideak transferitzea
GGKE	Proiektuak exekutatzea	Garapenerako ekintza bateratuak eta jarduera komunitarioa	Aholkularitza teknikoa. Ikerketa aplikatua. GGKE-en koadro teknikoetarako trebakuntza.	Proiektuen kofinantzaketa. Irakasle ikertzaileen mugikortasuna
	Kapital soziala sortzea	Unibertsitateko Garapenerako Hezkuntzako jardueretan kolaboratzea	Unibertsitateko boluntarioak orientatu eta GGKE-engana bideratzea	Unibertsitateko GGKE-ei laguntza ekonomiko eta materiala ematea
	Eragina	Unibertsitateko ikastegi eta zentroak GGKE-en bitartez proposamenak sortu eta zabaltzen	Ikertzaileek GGKE-etako ikerketa-departamentuetan eta kanpainetan kolaboratzea	Lankidetzaren inguruko ikerkuntza finantzatzea. Unibertsitatea eragileen topaleku gisa

1. Taula. GGKE-en eta unibertsitateen artean kolaboratzeko moduak.

Ingeniaritza eta arkitekturako ikasleek titulua eskuratu aurretik Garapenerako Lankidetzaren inguruan KAPak egiten dituztenean, kolaboraziorako-atal horietako bat baino gehiago hartzen dute beren lanean, eta horregatik, lanabes interesgarria dira Garapenerako Hezkuntzarako. UPV/EHUK eta ISF-MGIK Garapenerako Unibertsitate Lankidetzarako jarduerak indartzea dute helburu, beren estrategietan; estrategia horietan, Garapenerako Lankidetzaren inguruko Karrera Amaierako Proiektuak oso baliagarriak dira balio etikoak irakatsi ahal izateko.

Ingeniaritza-eskola bakoitzak bere modura definitzen ditu KAPak bere araudian, baina azken batean KAPen helburua da ikasleak karrera osoan zehar bereganatutako ezagutzak barneratu eta aplikatzea. Proiektua egitea ezinbesteko baldintza da titulua eskuratzeko, eta eskola teknikoetako ikasleek lan-merkatura jauzi egin aurretik igaro behar duten azken froga da. Hala, KAPak aukera ematen du hausnarketa kritikorako guneak eraikitze, eta etorkizuneko ingeniari eta arkitekto profesionali mundu globalizatuak ekarriko dizkieten erronkei irtenbidea aurkitzeko.


Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAPek bereizgarri nagusi batzuk dituzte, ohiko KAPen aldean: proiektuak sustatzen duen garapen mota, onuradunen tipologia, defendatzen den irtenbide teknologikoak gizartean eta kulturaren izango duen eraginaren analisia egitea, eta tarteko diren erakundearen izaera (GGKEak eta Hegoaldeko gizarte-erakundeak).

Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAPen bitartez, sarean lan egitea bultzatzen da garapenerako lankidetzan, ikasleen (etorkizuneko profesionalen) UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen (proiektuak zuzentzen dituztenak), eta EAEko GGKE-en artean, bai eta haiek Hegoaldean dituzten kontraparteekin ere.

Hala, biztanlerian baztertuta bizi diren sektoreekiko elkartasun eta konpromiso baloreak sustatzen dira. Izan ere, Garapenerako Lankidetzaren alorreko KAPek hiru helburu hauek betetzeko aukera ematen dute:

- Lehenik eta behin, kolaboraziorako harremanak hedatzen dituzte UPV/EHuren eta arazo teknikoak konpontzeko beharra duten lankidetzako entitate eta erakundeen artean. Horretarako, ikasleak bere prestakuntzan zehar bereganatu dituen ezagutzak baliatuko ditu;
- Bigarrenik, baliagarriak dira ikasleak ezaqutu dezan zer nolako lana egiten duten nazioarteko lankidetzaren sisteman diharduten eragileek;
- Eta, azkenik, estrategia berritzailea dira Garapenerako Hezkuntzaren alorrean; estrategia horretan sareak sortzea da helburu, elkarrekin aztertzeko gaur egun munduan nagusi den garapen-eredua, justizia eta ekitatea eta, hala, Giza Garapen Iraunkorra ahalbidetuko duten eraldaketa-jardueretara iritsi ahal izateko.

## GARAPENERAKO LANKIDETZAREN INGURUKO KAPEN PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN AKTORE ETA PROZESUAK



### 1. Irudia: Garapenerako lankidetzaren inguruko programan parte hartzen duten aktoreak

Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAP gehienak garapenerako lankidetzaren proiektuen barruko esku-hartze txikiak dira; esku-hartze txiki horietako bakoitzak irtenbide bat proposatzen du arazo tekniko zehatz baterako, zeharka arazo sozial bat dakarren arazo tekniko baterako. Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAPen Programan aktore askok hartzen dute parte, garapenerako lankidetzaren mugimenduak berak eta unibertsitateko komunitateak. ISF-MGI, batetik, GGKE bat da eta, bestetik, unibertsitateko elkarteak; horrenbestez, bi munduetako parte da (lankidetzaren eta unibertsitatearen) eta KAPen Programan bi munduon arteko zubi-lana egiten du; trebakuntza-ikastaroak diseinatu eta haietan parte hartzen du eta Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAP egiteko nahi duten ikasleei aholku ematen die.



2. Irudia: ISF-MGIk garapenerako lankidetzaren mugimenduaren eta unibertsitate komunitatearen artean egiten duen zubi-lana

Lankidetzaren inguruan egiten den KAP bakoitzean, oro har, partaide hauek egoten dira: Iparraldeko GGKE bat, Hegoaldeko GKE edo gizarte-erakunde, unibertsitate edo komunitate bat, proiektua zuzentzen duen irakasle bat eta proiektua egingo duen ikaslea. Lankidetzako KAPetan parte hartzen duten aktoreen mapa honelaxe osatuta dago:



3. Irudia: Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAPetan parte hartzen duten aktoreen mapa

Programan parte hartu nahi duten ikasle eta irakasleek trebakuntza jasotzen dute aldez aurretik Lankidetzaren eta Giza Garapenerako Teknologien inguruan, trebakuntza horretan ere eragile askok parte hartzen dutelarik.




Programan parte hartzen duten aktoreen ugaritasun horixe da, ISF-MGIren ustez, haren aberastasun eta konplexutasunaren adierazgarri garbiena, baina ez bakarria. Programak bi aurpegi ditu esku-hartzei dagokienean ere:


- a) Hegoaldean: Arazo zehatzetarako irtenbide teknikoak eskaintzen dituzten esku-hartze txiki gisa sortutako KAPak.
- b) Iparraldean: Garapenerako Hezkuntza, unibertsitateko komunitatearekin eta garapenerako lankidetzaren mugimenduarekin artikulatua.

Programak, halaber, hainbat prozesu hartzen ditu bere baitan: ikaskuntza akademikoa (lehen aipatu bezala, KAParen helburua da ikasleek lan batean karrera osoan zehar bereganatutako ezaqutzak baliatu ahal izatea) baina batez ere, sentsibilizazioa eta ikasleak pertsona gisa hazi ahal izatea.

Azkenik, ISF-MGIk Programa koordinatzen eman dituen urteotan ikasi dugu gauzatzen diren KAPez gain, Garapenerako Unibertsitateko Lankidetzarako bestelako ekintzak ere sortzen direla askotan, eta hala, proiektuan parte hartzen dutenen eta oro har UPV/EHUren jardura akademikoak osatu egiten direla. Adibidez, hitzarmenak definitu eta ezarri izan dira Iparraldeko zein Hegoaldeko beste unibertsitate eta GGKE batzuekin, eta horri esker, hainbat lan egin dira trebetasunak sortzera bideratuak, erakundeak indartzeko, eta ezaqutza sortu eta trukatzeko (irakasle eta ikasleen truke-programak, Karrera Amaierako Proiektu berriak, elkarrekin egindako ikerketak...). Potentzial handi horri esker da Programa are estrategikoa eta baliodunagoa ISF-MGIrentzat eta oro har, unibertsitate osoarentzat.







**4 / KASU-IKERKETA: 2006-2012  
URTEETAN ZEHAR UPV/EHUN  
GARAPENERAKO LANKIDETZAREN  
INGURUAN EGINDAKO KAPAK**



**4 / KASU-IKERKETA: 2006-2012 URTEETAN ZEHAR UPV/EHUN GARAPENERAKO****LANKIDETZAREN INGURUAN EGINDAKO KAPAK****IKERKETARAKO ERABILITAKO METODOLOGIA**

Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAPen Programan eraqile askok eta askok hartzen du parte eta horren ondorioz, zaila da Programa analizatzea, ebaluatzea, eta ahalik eta ikaskuntza osatu eta erabilgarrienak ateratzea. Hori kontuan hartuta, ikerketan hainbat metodologia-tresna baliatu dira, eraqile desberdinen arabera. Analisia hiru metodo hauek erabilia egin da:

- Lehenik eta behin, programan parte hartu duten ikasleen esperientzia pertsonala jaso da galdetegen bidez.
- Bigarrenik, elkarrizketak egin zaizkie halako KAPak zuzentzen eskarmentu gehien duten irakasleei, edo Programan hasieratik parte hartu dutenei.
- Azkenik, irakasle, ikasle eta EAEko GGKE-etako pertsonalaren arteko topaketak antolatu dira, esperientziak trukatu eta eztabaidatzeko<sup>17</sup>.

Horietan guztietan (galdetegi, elkarrizketa, topaketatan) hezkuntza-prozesuari buruzko galderak egin dira, eta ekimenean parte hartu duten pertsonak zer nolako hazkunde pertsonala eta profesionala bizi izan duten jakin nahi izan da.

Programaren barruan 2006/2007tik 2011/2012ra bitartean Lankidetzaren inguruan egindako KAPak hartu dira aintzat<sup>18</sup>. UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak eman ditu programan parte hartu duten ikasleen harremanetarako datuak, Bulegoak orpoz orpo lan egin baitu ISF-MGIrekin analisi hori egin ahal izateko.

**IKASLEEK PROGRAMAN IZANDAKO PARTE-HARTZEAREN GAINEKO AIPAMEN OROKOR BATZUK**

Jarriaan agertzen dira UPV/EHUn ikasketa teknikoak eskaintzen dituzten bederatzi eskola eta ikastegiak eta haietako ikasle eta IIP kopurua<sup>19</sup>:

- Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoa (ikasleak: 1332, IIP: 109)
- Donostiako Eskola Politeknikoa (ikasleak: 2016, IIP: 137)
- Donostiako Informatika Fakultatea (ikasleak: 698, IIP: 147)
- Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola (ikasleak: 427, IIP: 40)
- Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola (ikasleak: 1408, IIP: 120)

<sup>17</sup> Topaketa horiek "esperientzia tailerrak" deitu ditugu. Haietan, Programan parte hartu duten Hegoaldeko gizarte-erakundeen ikuspegia zeharka jaso da, haien kideen iritzia edota EAEko erakunde kolaboratzaileena jasota.

<sup>18</sup> Tarte horretan ikasturte akademiko edo eskola-urte hauek sartzen dira: 2006-2007, 2007-2008, 2008-2009, 2009-2010, 2010-2011, 2011-2012.

<sup>19</sup> Bederatzi zentroei buruzko zifrak UPV/EHUn "Unibertsitatea Zenbakitan 2010-2011" argitalpenetik atera dira. Ikasle eta irakasleen zenbakiak 2010-2011 ikasturtekoak dira, baina iruditzen zaigu erreferentzia gisa har daitezkeela denboraldi osorako. Zientzia eta Teknologia Fakultatea zerrendan sartu da han Ingeniaritza Kimiko eta Ingeniaritza Elektronikoko titulazioak eskaintzen direlako. Halaber, zerrendan ez da sartu Nautika eta Itsasontzi Makineria Goi Eskola Teknikoa, ikaskuntza teknikoak eskaini arren. Bolonia Plana indarrean sartu arte hango ikasleak ez baitira behartuak egon titulua lortzeko KAP egitera; horrenbestez, aztertu den denbora-tartean, hango ikasleek praktikan ezin zuten Programan parte hartu.

- Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa (ikasleak: 3299, IIP: 436)
- Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola (ikasleak: 2123, IIP: 161)
- Bilboko Meatzeen eta Herrilanen Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola (ikasleak: 763, IIP: 72)
- Zientzia eta Teknologia Fakultatea (ikasleak: 2075, IIP: 650)

12.000 pertsona baino gehiago osatzen dute UPV/EHuren zientzia eta teknologiaren alorreko eskola eta ikastegietako ikasleria, eta KAP egin behar dute ezinbestean ikasketak amaitu eta titulua eskuratzeko. Estimatu da analisiaren denbora-tartean horietatik 2.000 inguru izan direla urtero azken ikasturteko ikasle eta, horrenbestez, Programako balizko parte-hartzaile.

Ikasleen zifra horiek berak analizatu eta karrera eta sexuen arabera sailkatuta, hauxe dugu emaitza:

UPV/EHU-KO IRAKASKUNTZA TEKNIKOAK	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Irakaskuntza tekniko guztietan	8.573	3.683	12.256
Arkitektura eta Arkitektura Teknikoa	742	877	1.619
Telekomunikazioen Ingeniaritza	207	112	319
Informatikako Ingeniaritza	389	94	483
Industria Antolakuntzako Ingeniaritza	474	259	733
Industria Ingeniaritza	1.05	324	1.374
Industria Ingeniaritza Teknikoa espezializazioa	1.243	278	1.521
Ingeniaritza Kimikoa	176	216	392

2. Taula: UPV/EHUko ikasleriaren banaketa irakaskuntza teknikoetan eta zenbait gradutan, sexuen arabera (UPV/EHU, 2012)

Taulara begiratzen badugu, eta UPV/EHUko eskola eta ikastegi teknikoetan eskaintzen diren titulazio guztietako datuei sexuen arabekoei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu karrera gehienetan askoz ere gizonetzko ikasle gehiago dagoela emakumezkoak baino, eta Arkitekturan eta Ingeniaritza Kimikoan baino ez dagoela emakumezko ikasle gehiago.

Egoera hori UPV/EHUko Ikerketa eta Irakaskuntza Pertsonalean ere nabari da, oro har. "Unibertsitatea zenbakitan 2010-2011" argitalpeneko datuen arabera, plantilan finkatuta dagoen pertsonalaren % 57 gizonetzkoak dira, eta % 43 berriz, emakumezkoak. Eta alde hori handitu egiten da eskola eta karrera guztietan (teknikoetan zein ez), laneko kategoria handitzen den heinean, taula honetan ikus daitekeen bezala:


IRAKASKUNTZA-KATEGORIA	Gizonak	Gizonen %	Emakumeak	Emakumeen %	Guztira
I Mota [1]	2126	% 62	1285	% 38	3411
II Mota [2]	104	% 54	88	% 46	192
III Mota [3]	423	% 47	483	% 53	906
IV Mota [4]	352	% 45	429	% 55	781
A Mota [5]	4	% 50	4	% 50	8

3. Taula: UPV/EHUko IIPren banaketa laneko kategorien arabera, sexuka bereizita (UPV/EHU, 2012)

[1] I Motaren barruan postu hauek sartzen dira: Unibertsitateko Katedratikoa, Unibertsitate Eskolako Katedratikoa, Unibertsitateko Irakasle Titularra, Unibertsitate Eskolako Irakasle Titularra, Nautika Goi Eskola Teknikoko Irakasle Numerarioa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko Irakaslea, Unibertsitateko Kolaboratzailea, Unibertsitate Eskolako Kolaboratzailea, Asoziatua, Irakasle Osoa, Agregatua, Tailerreko/Laborategiko Maisua. [2] II Motaren barruan: Unibertsitateko Katedraduna, Unibertsitateko Kolaboratzailea, Unibertsitate Eskolako Kolaboratzailea, Asoziatua, Irakasle Adjuntua (Doktore Laguntzailea), Doktorea, Unibertsitateko Irakasle Emeritua, Unibertsitateko Irakasle Bisitaria, Ramón Y Cajal Ikertzailea, praktika-trebakuntzan daogen Ikertzailea (UPV/EHUko bekadunak), UPV/EHUko ikertzaile bekaduna. [3] III Motaren barruan: Unibertsitateko Kolaboratzailea, Asoziatua, Bitarteko Laborala. [4] IV Motaren barruan: Ikertzailea (Doktorea), Ikertzailea (Ez doktorea), Juan de la Cierva Ikertzailea, praktika-trebakuntzan daogen Ikertzailea (UPV/EHUko bekadunak), Marie Curie ikertzaileak, praktika-trebakuntzan daogen ikertzaileak (EJko bekadunak), UPV/EHUko Ikertzaile Bekaduna, Hezkuntza eta Kultura Ministerioiko Ikertzailea, praktika-trebakuntzan daogen ikertzailea (HKMko bekadunak), Nafarroako Gobernuiko Ikertzaile bekaduna. [5] A Motaren barruan: Bitarteko Laborala.

Aztertutako denboraldian, guztira, Garapenerako Lankidetzaren inguruko 28 Karrera Amaierako Proiektu (GLKAP) egin dira UPV/EHU<sup>20</sup>. Garapenerako Lankidetzaren inguruko Karrera Amaierako Praktika eta Proiektuen Programako datu orokorrak kontuan hartuta, hots, Programa martxan jarri zenetik praktikak garapenerako lankidetzaren alorrean egin dituzten UPV/EHUko ikasle kopurua ere kontuan hartuta<sup>21</sup>, GLKAP bat egin duen ikasleriaren portzentajea txikia da; Praktiken eta KAPen Programan parte hartu duten ikasle guztien % 5 baino ez (48letik 28).

Lankidetzako GLKAP Programaren parte hartu duen ikasle kopurua sexuen arabera sailkatzen badugu, 1. grafikoan ikusten den bezalaxe, parte-hartzea ia paritarioa izan da generoari dagokionez.



1. Grafikoa: GLKAP egin duen ikasleria, sexuen arabera sailkatuta


Datu horiek Programaren datu orokorrekin alderatuta (garapenerako lankidetzaren alorrean praktikak egin dituzten ikasleak batuta, beste behin ere) alde handia ikusten da. Programan, oro har, emakumezko ikasleen parte-hartzea oso nabarmena da; parte hartu dutenen % 80tik gora emakumeak dira, eta KAPen modalitatean

<sup>20</sup> Hemendik aurrera, GLKAP laburdura erabiliko dugu Garapenerako Lankidetzaren inguruko Karrera Amaierako Proiektua adierazteko.

<sup>21</sup> Datuak "Garapenerako Lankidetzeta UPV/EHU. O Diagnostikoa" dokumentutik atera dira (UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzeta Bulegoa, 2012).

aldiz, paritatea ikusten da ia.

Ikasturte akademiko bakoitzean egin den proiektu kopurua analizatzerakoan, ez da joera argirik ikusten. Programaren bitartez KAP egin duten ikasleen kopurua aldatu egin baita urtetik urtera, gorantz eta beherantz: 0 eta 8 bitartean. Zenbakiak hurrengo grafikoan agertzen dira:




2. Grafikoa: Programan parte hartu duen ikasle kopuruaren bilakaera.

Kontuan hartzen badugu ikertu den denboraldian UPV/EHUko karrera teknikoetako 2.000 ikaslek egin dutela KAP, GLKAP egin duen ikasle kopurua oso murrizta da, ohiko KAP egin duten ikasleen aldean; urteroko GLKAPen portzentajea % 0,5 baino txikiagoa da.

GLKAP egin duten ikasle guztiak Gipuzkoako Campusekoak (16 ikasle, % 57) edo Bizkaikoak (12 ikasle, % 43) izan dira, eta Arabako Campuseko inork ez du parte hartu 2011-2012 urtera arte. Programan parte hartzen duten ikasleen ikasketa-zentroari dagokionez, izan litezkeen 9 zentroetatik, bi zentroan metatzen dira gehien-gehienak; ikasle gehienak Donostiako Eskola Politeknikokoak dira (13 ikasle, % 46), edo Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikokoak (10 ikasle, % 10).

Horiez gain, Programan parte hartu dute Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolak (2 ikasle, % 7), Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoak (2 ikasle, % 7) eta Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolak (ikasle 1, % 4). Beheko grafikoan ikus daiteke zein titulaziotik hartu duten parte orain arte programan:



3. Grafikoa: Programan parte hartu duen titulazio desberdinetako ikasle kopurua.

Ikerketan sartu diren Lankidetzako 28 KAPetatik 26tan, ikasleak tokian bertan egonaldia egin du, 3 hilabetez batez beste. EAEko Herri Administrazio nagusien Garapenerako Lankidetzaren politiketan definitutako lehentasun geografikoekin bat etorritik, KAP gehienak Latinoamerikako eta Karibeko herrialdeetako garapenerako

lankidetzeta-proiektuen baitan egin dira (19, hots, totalaren % 68) eta ondotik, Afrikan (8, totalaren % 29)<sup>22</sup>. 13 herrialdetan lan egin da, eta Guatemala eta El Salvadorren egin dira GLKAP gehienak.

HERRIALDEA	EREMU GEOGRAFIKOA	IKASLE KOPURUA
Guatemala	Latinoamerika eta Karibe	8
El Salvador	Latinoamerika eta Karibe	4
Bolivia	Latinoamerika eta Karibe	2
Peru	Latinoamerika eta Karibe	2
Dominikar Errepublika	Latinoamerika eta Karibe	1
Haiti	Latinoamerika eta Karibe	1
Ekuador	Latinoamerika eta Karibe	1
Mozambique	Afrika	3
Kongoko E.D.	Afrika	1
Ruanda	Afrika	1
Etiopia	Afrika	1
Ekuatore Ginea	Afrika	1
Kamerun	Afrika	1
Euskadi	Europa	1

4. Taula: Garapenerako Lankidetzaren inguruan KAP zein herrialdetan egin diren, eta herrialde bakoitzean zenbat ikaslek parte hartu duen.

### IKASLEEI EGINDAKO GALDETEGIEN EMAITZAK

KAP egin bitartean ikasleek zer nolako esperientziak bizi izan dituzten eta tarteko diren eragileen inguruan (tutoreak, EAEko GGKEa, Hegoaldeko gizarte-erakundea, ISF-MGI) zer iritzi duten jakiteko ahalik eta informazio zehatzena jasotzeko diseinatu zen galdetegia<sup>23</sup>. Galdetegia posta elektronikoko bidez bidali zitzaizen KAPa Programaren barruan egin zuten pertsona guztiei, eta horietatik 17k erantzun zuten; hots, ikasle parte-hartzaileen % 61ek. Hemendik aurrera azpiatal honetan agertuko diren datuak 17 pertsona horien erantzunetatik ondorioztatutakoak dira.


Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAPak tipologiaren arabera aztertuta, ikusi dugu horietatik % 88k, lankidetzako programa edo proiektuetan sartuta egonik, behar edo arazo tekniko eta zehatz bati erantzuten ziotela. Gainerako % 12 teknologia egokien prototipoak sortzeko garatu dira.

GLKAPetan garatutako irtenbide teknikoen egiazko erabilgarritasunari eta praktikan jartzeari dagokionez, proiektuen % 24 baino ez dira exekutatu edo exekutatu. Beheko grafikoak erakusten du egoera: "bestelakoak" kategorian sartu dira ikasleek gaur egun proiektua zein egoeratan dagoen ez dakitenean.

<sup>22</sup> Proiektu horietatik bat Euskadin eginiko KAP bat da; nahiz eta ezin den berez garapenerako lankidetzaren inguruko proiektutzat hartu, teknologia egoki baterako prototipo bat da (Gipuzkoako nekazaritza-ingurune batean dagoen baserri bateko ganaduaren hondakinak tratatzeko kostu baxuko biodigestore bat), ikasle batek Programaren baitan egin zuena. Horregatik sartu da laginean. Proiektu hori da gainerako % 3a, eta hala osatzen da laginaren % 100a.

<sup>23</sup> Galdetegi osoa eta egindako KAPen inguruko oinarritzko informazioa eskuragarri dago I. Eranskinean.





4. Grafikoa: Proiektuen gaur egungo egoera, haien eraikuntza edo gauzatzeari dagokionez.



KAParen bitartez zer nolako arazo tekniko edo soziala gairiditu nahi izan den karakterizatzerakoan, ikusten dugu 17 kasuetatik 4tan baino ez zela genero-ikuspegi lan egin, hots, proiektuen % 25ean baino ez.

Genero-ikuspegiaren analisiarekin jarraituz, orain arte eraiki diren 4 proiektuetatik bakarrean baino ez da bermatu gizon eta emakumeen parte-hartze ekitatiboa, eraikuntzaz arduratu den taldean zein mantentzeaz arduratuko den taldean.

Gauzatu diren GLKAP gehienetan, ikasleaz gain, beste partaide batzuk ere izan dira: lan akademikoa zuzendu duen UPV/EHUko irakasle bat, lanaren hartzaile izan den Hegoaldeko gizarte-erakunde bat, Hegoaldeko gizarte-erakunde horrekiko lotura gisa lan egin duen EAeko GGKE bat, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa eta ISF-MGI; horiek guztiek aholku eman diote ikasleari, KAPA egin baino lehenago eta ondoren. Galdetegiaren bidez modu independentean balioetsi nahi izan da eraqile horietako bakoitzak betetako papera.

#### UPV/EHUko tutoretza teknikoaren balioespena

Zenbait ikaslek bi arduradun izan ditu bere KAPeko tutoretza teknikorako eta, hala, 20 tutoretza egin dira guztira. 20 tutoretza tekniko horietatik, 5 emakumeek egin dituzte, eta 15 gizonek; horrek adierazten du aldi guztien % 75ean tutoretza teknikoa gizon batek egin duela.


Ondorengo taulan agertzen dira tutoretzak egin dituzten pertsona horiek UPV/EHUko zein departamendukoak diren:

UPV/EHU-KO DEPARTAMENDUA	IRAKASLE KOP.
Ingeniaritza Nuklearra eta Jariakinen Mekanika	8
Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumen Ingeniaritza	2
Telekomunikazio-sistemak	2
Ingeniaritza Elektrikoa	2
Ingeniaritzako Proiektuak	1
Arkitektura	1
Ingeniaritza Mekanikoa	1
Makinak eta Motore Termikoak	1
Teknologia Elektronikoa	1

5. Taula: gauzatu diren Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAPetako tutoretza teknikoez arduratu diren pertsonak zein departamendutakoak diren.

Taulan ikusten den moduan, "Ingeniaritza Nuklearra eta Jariakinen Mekanika" departamendua da, oro har ur-hornidurarekin eta saneamendurekin lotutako ingeniaritza-proiektuez arduratzen dena, GLKAPen tutoretza teknikoetan gehien parte hartu duena. Datu horrekin bat etorriz, egin diren GLKAPetan gehien landu den gaia ur-hornidura eta oinarritzko saneamendua izan da, eta askoz atzerago, ingurumena, energia elektrikoa eta IKTak.

Ikasleek modu positiboan balioetsi dute tutore teknikoak GLKAP egiteko prozesu osoan zehar emandako laguntza, eta jasotako erantzun guztietan bost puntutik hiru baino gehiago eman diote.




5. Grafikoa: Tutore teknikoak emandako laguntzaren balioespena.

Tutore teknikoek ikasleei emandako sostengua KAPEkin lotutako arazo tekniko eta administratiboen ingurukoa izan da. Hutsune edo hobetu beharreko alderdien artean, hainbat pertsonak komunikazio errazaren falta antzeman du GLKAPak egin bitartean, eskala txikiko irtenbide teknikoaren inguruko ezaqueraren sakonaren falta, eta garapenerako lankidetzaren inguruko gaiak ez ezaqutzea.

#### EAEko GKEE-en balioespena

Galdetegia bete duten 17 pertsonak EAEn egoitza duten Garapenerako Gobernu Kanpoko 6 Erakunderen bitartez egin dituzte GLKAPak: Denok Osasunaren Alde-DOA, Paz con Dignidad, ADSIS Fundazioa, Itaka Escolapios Fundazioa, Lagun Artean eta Ingeniería para la Cooperación- Lankidetzarako Ingeniaritza.

GGKE horiek ikasleei emandako laguntza modu positiboan balioetsi da, 3ko puntuazioa edo handiagoa jaso baitu: beste herrialdera bidaiatu aurretik (ikasleen % 82k), herrialdean bertan egon bitartean (ikasleen % 88ek) eta handik itzulitakoan (ikasleen % 76k).




6. Grafikoa: Proiektuaren lurraldean egon ondoren EAEko GGKEak emandako laguntzaren balioespena.

Emandako laguntza nagusien artean aipatzen dira, besteak beste, GLKAP egin bitartean jasotako laguntza logistikoa, teknikoa eta humanoa, eta GLKAP amaitu ondoren GGKEan boluntario-iana egiten jarraitu ahal izateko emandako erraztasunak. GGKE-en eta ikasleen arteko harremanean hobetu beharreko gauzen artean komunikazio-falta aipatu da, zenbait kasutan ez baita komunikazio errazik izan.

#### Hegoaldeko gizarte-erakundeen balioespena

EAEko erakundeekin gertatu den bezala, Hegoaldeko gizarte-erakundeek emandako laguntza modu positiboan balioetsi da; egonaldia baino lehenago emandako laguntza (ikasleen % 82k), egonaldia egin bitartean emandakoa (ikasleen % 88k) eta egonaldiaren ondoren emandakoa (ikasleen % 76k).



7. Grafikoa: Hegoaldeko gizarte-erakundeak proiektuaren lurraldean eginiko egonaldian zehar emandako laguntzaren balioespena.

Indargune gisa, aipatzen da ikasleekin kolaboratzeko jarrera ona, ikasleek eskatutako datuak ematea, eta egonaldian zehar sortutako arazoei aurre egiteko laguntza ematea. Gehien aipatu den hutsunea egonaldia hasi aurretik gizarte-erakundeari eta komunitate lokalari buruzko informazio nahikorik ez jasotzea izan da.

### EHUko Garapenerako Lankidetzeta Bulegoaren balioespena


UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzeta Bulegoa, nagusiki, informazio bila joaten diren ikasleei informazioa eta aholkua emateaz arduratzen da, eta egonaldiak egiten direnean, laguntza ekonomikoak esleitu eta kudeatzeaz ere bai. Eginkizun horietatik lehenari dagokionez, balioespen positiboa jaso du, ikasleen % 65ek 3 edo gehiagoko puntuazioa eman baitio han jasotako arretari.

Laguntza ekonomikoari dagokionez, ikasleek modu positiboan ebaluatu dute laguntza eskatzeko bete beharreko baldintzak eta jarraitu beharreko prozedura azaltzeko garbitasuna, eta laguntza esleitu eta ordainketa egiteko azkartasuna; balioespen txarra ordainketa horren zenbatekoak jaso du, kasu askotan ez baita nahikoa bidaia bera ordaintzeko ere.

### ISF-MGIren balioespena

Txosten honetan hainbat aldiz aipatu dugun moduan, ISF-MGIk paper garrantzitsua betetzen du Programaren garapenean. Galdetegia bete duten ikasleek modu positiboan balioetsi dute ISF-MGIk egiten duen programaren zabalkundea, eta ikasleen % 82k 3 baino gehiagoko puntuazioa eman dio. Antzeko balioespena eman zaio GLKAP egiteko elkartera hurbiltzen denak jasotzen duen arretari ere.

Esan dugun bezala, Programan parte hartzeko baldintza gisa eskatzen da lankidetzako trebakuntza izatea; trebakuntza hori ISF-MGIk eskaintzen du, *Garapenerako Lankidetzaren Sarrera Ikastaroa ikastaroen eta Garapena, Lankidetzeta eta Teknologiari buruzko mintegien* bitartez; bada, bi horiek oso balioespen positiboa izan dute, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezalaxe.



8. Grafikoa: ISF-MGIk emandako trebakuntzaren inguruan ikasleek egindako balioespena

ISF-MGIren laneko beste alderdi batzuek ere oso balioespen positiboa jaso dute; hala nola parte-hartzaile batzuen eta GGKE-en artean egiten duen zubi-lana, eta behar duten ikasleei prozesu osoan zehar eskaintzen dien laguntza.


ISF-MGIIn hobetu beharreko alderdien artean, eskaintako laguntza teknikoan hutsuneak daudela adierazi du hainbat pertsonak, KAP egiterakoan hainbat zentrotan eman beharreko urrats administratiboak ez ezagutzea, prozesuan zehar gertatzen diren gorabeheren aurrean erantzuteko denbora asko behar izatea, eta orain arte, GLKAP egiten duten ikasleen segimendua egiteko erreferentziazko pertsona egonkor bat ez edukitzea.

### Esperientziaren balioespen pertsonala

Galdetegian gogobetetze akademikoaren mailari buruz galdetu zitzairen, Lankidetzako KAPak ikaslearen unibertsitate prestakuntzaren barruan sartzen baitira, hots, laneko etorkizunerako prestakuntzan, eta alor pertsonalean ere ikasi eta haztea ahalbidetzen baitute. Proposatutako helburu akademikoen betetze-mailari dagokionez, pertsonen % 53k altutzat jo dute, eta % 41ek onargarritzat. Etorkizun laboral edo profesionalerako prestakuntzaren ikuspegitik aztertuta, % 47k altutzat jo dute, % 35ek onargarritzat, eta % 18k baxutzat. Balioespen pertsonalari dagokionez, ikerketan parte hartu duten ikasle guzti-guztiek altutzat jo dute.

Ikasleriaren zati jakin batek arazoak izan ditu Unibertsitatean, zenbait kasutan halako proiektuei esleitzen zaien izaera "berezia" dela-eta; arazo horiek izan dira, besteak beste, KAPetako epaimahaietan GLKAP Programa ez ezagutzea, halako proiektuak ez ezagutzea, behar bezalako tutoretza teknika aurkitzeko zailtasuna, irakasleek proiektua testuingurutik ateratzea, edo proiektuaren garrantzia teknika behar bezala ez aitortzea.

GLKAPen eraginetako bat adar teknikoetako ikasleak Garapenerako Lankidetzaren mundura hurbiltzea izan da; hala, kasu batzuetan, unibertsitateko karreraren zehar ordura arte aztertu ez zuten aukera profesional baterako ateak ireki zaizkie.



9. Grafikoa: Programan parte hartu duten ikasleek GLKAP egin ondoren Garapenerako Lankidetzarekin izan duten lotura.

Goiko grafikoan ikus daitekeen modura, Programan parte hartu duten ikasleen % 70ek modu batean zein bestean Garapenerako Lankidetzaren munduan lanean jarraitu du, eta % 24k profesionalki jardun du.

Azkenik, aipatzekoa da GLKAP horien bitartez etika, elkartasun eta arazo sozialen inguruan aberastasun pertsonala eta ezagutza lantzeko aukera bikaina eskaintzen dela, gainerakoan unibertsitateko karrera osoan zehar ez baitira jorratzen.

### IRAKASLEEI EGINDAKO ELKARRIZKETEN EMAITZAK

Irakasleen kolektiboa tratatzerakoan, galdetegia ez beste lanabes batzuk baliatzea erabaki zen. Bi hauek hautatu ziren: elkarrizketa pertsonal erdi egituratua eta esperientzien tailerrak. Elkarrizketa sakonak GLKAPen

zuzendaritzan eskarmentu gehien edo Programaren ezaqutza gehien duten irakasleekin egin ziren<sup>24</sup>; esperientzia-tailerretan, aldiz, aurkezpen eta eztabaida irekiak egin ziren, eta horietara GLKAPak zuzendu dituzten irakasle guztiak gonbidatu ziren, bai eta Programan interesa zuten gainerako irakasle guztiak ere. Hala, Programan parte hartzen duten eragileen inguruan irakasleek duten iritzia jaso ahal izan da, eta ikasleek galdetegietan adierazitakoarekin kontrastatu. Jarraian laburtuko ditugu elkarrizketetan landutako gaiak.

**Ohiko KAPen eta Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAPen arteko aldeak:  
eskakizun teknikoak, kalitate akademikoa eta mugak.**

Ikasleen galdetegietan ikusi zen zenbaitek aipatzen zutela KAPeko epaimahaietan ez zirela ezaqutzen halako proiektuak, zaila zela tutoretza teknikoak aurkitzea, irakasleek proiektuak testuingurutik ateratzen zizutela edo ez zutela proiektuaren garrantzia teknikoak behar bezala aitortzen; horregatik, irakasleei galdetu zaie zein diren, haien iritziz, ohiko KAPen eta Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAPen arteko funtsezko desberdintasunak. Hauek dira irakasleek aipatutako desberdintasun batzuk:

- GLKAPak ez dira lan teknikoak bakarrik; KAP guztiak lantzen dituzten alderdi teknikoek gain, zati soziala ere badute. Zati sozial horrek lan gehigarri bat dakar eta, zenbait kasutan, zati hori gehitzeak proiektuaren alderdi teknikoena murriztea ekar lezake, eta ondorioz proiektuaren garrantzia teknikoak. Nolanahi ere, hori ez da praktikan maiz gertatzen, eta ez da aitortzen orain arteko GLKAPetan halakorik gertatu denik.
- GLKAP guztiak arazo errealetarako konponbideak eskaini nahi dituzte eta ondorioz, eskakizun handiagoak bete behar dituzte (eskakizun teknikoek dagokienez). Arazo errealetarako konponbidea emateko erabiliko diren proiektuak direnez, errore-marjina txikiagoa onartzen dute, eta oro har, ordu gehiago eskaini behar zaie gauzatu ahal izateko.
- Gainera, gehienetan ikasleek harremana sortzen dute GLKAPean emandako irtenbide teknikoaren onuradun izango diren pertsonekin; adiskidetasun eta elkartasun loturak sortzen dira, eta horrenbestez, erantzukizun-sentipen handiagoa sortzen da, proiektua ahalik eta onena eta erabilgarriena izan dadin onuradunentzat.

GLKAPen kalitate eta zorroztasun akademikoari dagokionez, galdetutako irakasleek aipamen hauexek egin dituzte:

- Gauzatu diren GLKAPek erakutsi dute kalitate akademikoari dagokionez arazorik ez izateaz gain, kasu askotan ohiko KAPen batez besteko kalitatea baino handiagoa dutela, arazo errealeak konpontzeko diseinatu baitira eta, horrenbestez, proiektu teoriko hutsak baino exijenteagoak baitira. Esperientziak erakutsi digunez, arazo errealetarako konponbideak ematera zuzenduta dauden KAPek berezkoa dute zorroztasun akademikoa.
- GLKAPetan ez da oro har azken belaunaldiko teknologia edo *high-tech* erabiltzen, eskuragarri dauden baliabideak eta teknologia egokitu behar izaten baitira, erabiliko diren tokirako egoki izan daitezen. Horrek ahalegin gehiago eskatzen du, lana eta azkartasuna; horrenbestez, ikasleek baliabide ugari mobilizatu behar dituzte, eta KAPari gehigarri akademiko bat erantsi. Osagarri teknologikoaz gain, GLKAPek elementu ekonomikoak ere badituzte eta, batez ere, elementu sozialak. Azkenik,

<sup>24</sup> Galdetegi osoa eta irakasleekin egindako elkarrizketen inguruko oinarritzko informazioa eskuragarri dago II. Eranskinean.

epaimahaia egindako lan izugarriaz konturatu ohi da, eta modu positiboan balioetsi ohi du. GLKAPek oso nota altua jaso ohi dute, ia kasu guztietan.

GLKAPek ohiko KAPen ondoan dituzten muqa edo arazo nagusiak hauexek dira:

- Datuen eskuragarritasunaren muqa: Askotan, Hegoaldeko gizarte-erakundeek ez dituzte ingeniari-tza-proiektua definitzeko behar diren oinarriko datu teknikoak eskuragarri izaten, eta horrek zaildu eta mantsotu egiten du ikaslearen lana.
- Azaldutako arazoaren irtenbiderako aukera teknologikoen muqa: Arazo erreala konpontzeko inquiruko baldintzetara egokitu behar denez, aukera teknologikoak asko murrizten dira KAP teorikoagoen aldean.
- Dedikazio eta denbora gehiago eskaini beharra: aipatutako faktoreen ondorioz, eta gainera, kasu gehienetan lurraldean bertan egonaldi bat egin behar izaten delako. Horrenbestez, GLKAPek iraupen luzeagoa izan ohi dute, eta malgutasun gutxiago izan ohi dute exekuzio-epetan; ondorioz, ikasleen erritmoarekin arazoak sor daitezke.

### Programan parte hartzen duten eragile desberdinen papera eta haien arteko harremana

Unibertsitateak (ikasle eta irakasleek) ezagutza teknikoa ematen die GGKE-ei, eta GGKE-ek arazo sozialen ezagutza eta ikuspegi humanoa ematen dizkiote unibertsitateari; hala, prozesu horretan elkar aberastu eta osatu egiten dira. Programak antzekotasunak ditu UPV/EHUko eskola tekniko batzuetan lehendik zeuden unibertsitate eta enpresen arteko hezkuntza-lankidetzako programa batzuekin<sup>25</sup>, eta kasu horietan, GGKEak enpresaren baliokide dira, GLKAPetan. "Enpresa sozial" horiek konpondu beharreko arazoak proposatzen dizkiete ikasleei, eta ezagutzak ere eskaintzen dizkiete; gainera, ohiko KAPen aldean lehentasunak beste toki batzuetan jarrarazten dituzte. GGKE-ei esker, lehen unetik hartzen da kontuan KAPak eskaini beharreko irtenbideak etekin ekonomikoa eta teknikoa sortzeaz gain, onura soziala ere sortu behar duela. Eta analisi hori, enpresen ikuspegitik egiten den analisiaren aldean, oso prisma desberdinarekin egiten da.

Irakasle batzuk GLKAP bakoitzaren hasieran bilera bat egiten saiatzen dira, ikaslea eta GGKEko ordezkariaren batekin (hiru aldetako bilera bat); hala, elkar ezagutzen dute, komunikaziorako bideak ezarri, eta KAP egin bitartean lan egiteko kolaborazio-oinarriak finkatu. Kasu guztietan ezin izan da bilera hori egin, baina esperientziak argi utzi du hasierako bilera hori egitea oso gomendagarria dela, gauza positibo ugari ekartzen baitu. Gainera, GLKAPa bukatu ondoren GGKEarekin harremanetan jartzea ere oso baliagarri eta positiboa da, balioespena eskatzeko, eta ikaslearen azken kalifikazioa jartzerakoan hura kontuan hartzeko. Tarteko diren eragile guztien lan-karga eta -erritmoagatik zaila bada ere, ikasle, irakasle eta GGKEaren artean hainbat bilera egitea izango litzateke onena: hasierakoa, tartekoa eta amaierakoa. Zailtasun hori hezkuntza-lankidetzako programetan ere gertatzen da, eta badirudi unibertsitatearen eta kanpoko eragileen arteko lankidetzako behar denean, beti sortzen dela. Hori aldeztu aurretik jakinda, eragileentzako segimendua eta azken ebaluazioa egiteko inprimakiak sor litezke, hartara aurrez aurreko bilerarik egin ezin bada, gutxienez iritziak idatziz jaso ahal izan daitezke.

Irakasleek oso positiboki balioetsi dute GLKAP egin duten ikasleekiko harremana (gehieneko puntuazioa 5 izanik, 4 eta 5 bitartean eman dute), eta oro har kontzientzia sozialdun ikasleak izan ohi direla aipatzen dute, motibazio handikoak, eta KAP on bat egiteko gogo bizikoak.

<sup>25</sup> Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoko Hezkuntza Lankidetzako Programaren araudia hemen dago ikusgai: [http://www.ingeniaritza-bilbao.ehu.es/p224-content/es/contenidos/informacion/cesi\\_relaciones\\_empresa\\_cooper/es\\_cooperac/cooperacion\\_educativa.html](http://www.ingeniaritza-bilbao.ehu.es/p224-content/es/contenidos/informacion/cesi_relaciones_empresa_cooper/es_cooperac/cooperacion_educativa.html) [azken kontsultaren data 2013/09/27]

### Garapenerako lankidetzan trebakuntza izatea, KAPeko Programan parte hartzeko baldintza

Galdetutako irakasle guztien iritziz, GLKAP egin aurretik ikasleak lankidetzaren inguruan trebatzea behar-beharrezkoa da, baina guztiak bat datoz: trebakuntzaren zatirik garrantzitsuena GLKAP egin bitartean jasotzen da, ez lehenago. Trebakuntza horretan hainbat prozesu gertatzen dira (ikaskuntza formala eta ez formala, unibertsitatean, GGKEan...) eta konplexua da. Zenbaiten iritziz, beharrezkoa litzateke KAP egin bitartean hezkuntza formaleko jardueren bitartez trebakuntzan sakontzea, *on line* plataformen bidez, edo egonaldian zehar ere ahal izanez gero trebakuntza-jarduerak eginda.

GLKAPak zuzentzen dituzten irakasleen trebakuntzan sakontzea ere beharrezkotzat jotzen da, betiere haien parte-hartzea ahalbideratuko duten formatu egokietan ematen bada (esate baterako, IIPrentzako trebakuntza-ikastaro espezifikoak). Irakasleengana hurbildu eta haien trebakuntzan sakontzeko, desberdin jokatu behar dela uste da, ez ikasleekin bezala; edukiak egokitu egin behar dira, eta oso multzo heterogeneoa denez, eginkizun konplexua izango dela dirudi. Irakasleei zuzendutako trebakuntza-jardueretarako, bi gomendio zehatz aipatzen dira:

- Presentzialak badira, laburrak izan daitezela, edo bloke laburretan banatuak (goiz batekoak gehienez); gainera, eskola-orduetatik kanpo eman behar dira.
- UPV/EHUko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak (SAE/HELAZ) unibertsitateko irakasleei eskaintzen dien trebakuntza-eskaintzaren barruan sartzea<sup>26</sup>.

Interesa duten baina garapenerako lankidetzan eskarmenturik ez duten irakasleen prestakuntza-falta berdintzeko beste modu bat GLKAPak lankidetzako ezagutza edo eskarmentua duten beste irakasle batzuekin batera zuzentzea izango litzateke.

### Esperientziaren balioespen pertsonala

Galdetutako irakasleek oso positiboki balioetsi dute GLKAP bat zuzentzeak dakarren esperientzia, eta alderdi hauek nabarmendu dituzte:

- Halako KAPak zuzentzeak ikuspegi zabalago bat ekartzen du; unibertsitateko ezagutza teknikoei esker arazo sozialak konpon daitezkeela erakusten du. Ohiko KAPen aldean, laneko errutina-aldaketa ekartzen dute, eta orain arte gutxi egin direnez, oraindik ere gauza berria dira.
- Garapenerako lankidetzaren proiektuetan laguntzeko aukera ematen dute, eta euskal GGKE-ek eta haiekin lan egiten duten gizarte-erakundeek zer nolako lana egiten duten ezagutzeko aukera. Askotan, jakintza interesgarria izaten da ikuspegi teknikitik ere.
- Halako KAPak egiten dituzten ikasleek motibazioz kutsatu ohi dituzte irakasleak ere.

<sup>26</sup> UPV/EHUko Hezkuntza Laguntzarako Zerbitzuari buruzko argibide guztiak hemen daude eskuragarri: <http://www.ehu.es/ehusfera/helaz/> [azken kontsultaren data 2013/09/27]



### Programa hobetzeko proposamenak

Programari bultzada handiagoa emateko, zabalkunde-lana funtsezkotzat hartzen da. Unibertsitatearen barruan, Programa hasi zenetik UPV/EHUn egin diren GLKAPen inguruan jasotako esperientzia praktikoak, jardunbide egokiak eta ikasitako lezioak gehiago hedatu beharko lirateke. Informazio abstraktu edo generikoa eman ordez, egindako proiektuen adibideak erakutsi beharko lirateke, ikasle zein irakasleek ikus dezaten egin daitezkeela, eta euren unibertsitatean bertan horretarako atak irekita dituztela.

GLKAPek arrakasta izateko, ikasleek KAParen gaia hasieratik definitzen modu aktiboan parte hartzea oso gomendagarria da, haiei gaia erabakita eman ordez. GLKAPerako gaia bilatzean ikasleek modu aktiboan parte hartzen badute, horrek bermatu egiten du proiektuan zehar motibatuta eta lanerako prest egongo direla. Esperientziak erakutsi digu GLKAPerako gaia bilatzen parte hartzen duten ikasleen %100ak arrakastaz amaitzen duela proiektua. Aldiz, esperientzia horrek berak erakusten digu badela GLKAP sorta txiki bat, hasi arren amaitu ez dena, eta dirudenez ikasleek motibazio nahikoa edo behar bezalakoa ez izateagatik gertatu dela; itxura guztien arabera, gaia aurkitu beharrik gabe, alde zurretik zehaztutako gai bat eman zaielako gertatu da hori.

Irakasleek Programan duten parte-hartze eta lana hobetzeko, ongi legoke GLKAPak zuzendu dituzten edo garapenerako lankidetzan interesa duten irakasleentzako jarduerak antolatzea, euren interesa sustatzeko, aurrez aurre ikus daitezten, elkar ezaqutu eta inpresio eta esperientziak truka ditzaten. Hainbat formatutako jarduerak izan litezke; hitzaldiak, mahai-inguruak, eta abar. Irakasleentzako trebakuntza espezifiko bideratzeko, unibertsitateak horretarako dituen zerbitzuak baliatu beharko lirateke, hala nola Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzua. Irakasleen trebakuntza zabaltzeko, hezkuntza-jarduera zehatzak abian jartzeaz gain, GLKAPetan esperientzia duten eta ez duten irakasleen arteko osagarritasuna ere ahalbidetu beharko litzateke; horretarako, proiektuak elkarrekin zuzendu beharko lituzkete (ikastetxeko araudiak aukera ematen badu), eta proiektu horietan esperientziak eta ezaqutzak partekatu. Irakasleek Programan duten interesa eta parte-hartzea areagotzeko aipatu den beste aukera bat Iparralde eta Hegoaldeko unibertsitateen artean ikerkuntza- eta lankidetzako proiektuak sustatzea da; esparru horretan IIPak doktore-tesiak egin ahal izango lituzke, eta horri esker, GLKAP gehiago egongo lirateke.

Elkarrizketatutako pertsona batek proposatu du Programa instituzionalizatu egin beharko litzatekeela zentro bakoitzean, eta denbora luzean irautea nahi bada, baliabide gehiago eskaini beharko litzaizkiekeela. Haren iritziz, zentroetan lehendik dauden egiturak baliatu beharko lirateke (enpresekiko harremanetarako zuzendariordetzak, hezkuntza-lankidetzako programak eta praktika-programak), eta haien bitartez GLKAPak egiteko aukera eskaini, eta ez modu independentean egiteko aukera bakarrik. Halaber, pertsona horren iritziz, halako KAPak zuzentzen dituzten irakasleei kreditu gehiago aitortu beharko litzaizkieke, ohiko KAPak baino denbora eta dedikazio gehiago eskatzen baitute.

Azkenik, Programan genero-ikuspegia sartzeari dagokionez, ikuspegi hori ikasleen trebakuntzan eta proiektuaren gauzatzean zeharka txertatu beharko litzatekeela uste da, baina irakasleek ez dira sentitzen prozesu espezifiko hori bultzatzeko gai, ez eta behar adinako ezaqutzen jabe ere. Horretarako, ISF-MGI elkarteaz gain, euskal GGKEak eta GLKAPetan parte hartzen duten Hegoaldeko gizarte-erakundeak funtsezkoak

izango direla uste da; izan ere, kasu askotan ikuspegi horrekin lan egiten dute, eta eskarmentu zabala dute ikuspegi hori proiektuetan txertatzeko metodologiaren alorrean. GLKAPek genero-ikuspegiari buruzko puntu espezifiko bat edukitzea litzateke idealena, eta helmuga horretara iritsi behar genukeela uste da (puntu horretan proiektuan erabilitako teknologiek lotutako genero-hausturak agerian utzi ahal izateko); hala eta guztiz ere, badirudi praktikan horretara iristeko asko falta dela. Egoera horretara hurbiltzeko, GLKAPetan gutxienez eskubideen ikuspegiari buruzko puntu zabalago bat sartzea proposatzen da eta, bertan, besteak beste genero-berdintasunari eta emakumeen eskubideei buruz hitz egitea (besteen maila berean, alegia).

## IKASLE, IRAKASLE ETA GGKE-EKIN IZANDAKO ESPERIENTZIA-TAILERREN EMAITZAK

GLKAPen inguruko esperientziak partekatzeko, batzuk besteen ikuspuntuak ezaugarritzeko eta etorkizunera begira, Programa hobetzeko proposamenak jasotzeko, tailer bat egitea proposatu zen, ordura arte parte hartu zuten eragile guztiak gonbidatuta (ikasleak, irakasleak, GGKEak). Hasieran tailer bakarra egitea aurreikusitua zen, baina azkenean, gai ugari landu behar zirenez, hainbat tailer espezifiko egitea erabaki zen, eta horietako bakoitzean eragile bati buruz aritzea: irakasleak, GGKEak, ikasleak<sup>27</sup>.



Tailerren bitartez, Garapenerako Unibertsitate Lankidetzan adituak diren eta GLKAPetan eskarmentua duten UPV/EHUko kideak bildu ahal izan ziren; haien ekarpenei esker Programa hedatzeko, eta hobekuntzarako proposamenak egin zitzaizkien. Tailerrak Programan interesa zuten guztiei zuzenduta egon ziren; batetik, 2006-2012 urteetan egindako GLKAPen ebaluazioa egiteko osagai-iturri gisa antolatu ziren, eta bestetik, Programaren hedakuntzarako beste lanabes bat izan zitezkeen, unibertsitateko komunitatea kontzientziatzeko, eta komunitate hori unibertsitatearen eta EAEko GGKE-en artean kolaborazio-sare berriak sortzera bideratzeko.

Hala, aurreko ikasturteetan GLKAPak egin dituzten ikasleek hartu zuten parte tailerretan, eta etorkizunean hala egin nahi dutenek, GLKAPak zuzendu dituzten IIPak eta etorkizunean zuzendu nahi dituztenak, proiektuetan parte hartu duten GGKE-etako pertsonalak, eta Programan interesa duten GGKE-etakoak, UPV/EHUko Lankidetzako Bulegoko ordezkariak eta ISF-MGIk. Tailerrak 2012/2013 ikasturtean egin ziren; gaur egun Goi-mailako Hezkuntzako Europako

<sup>27</sup> Esperientzia tailerretako edukia eta bertaratu ziren pertsonen eta hant sortutako eztabaidei buruzko zehaztasun gehiago ikus daitezke III. Eranskinean.

Espazioan (GHEE) ezartzen ari den Boloniako Planari buruz asko hitz egin zen, eta horrek etorkizun hurbilean ekarriko dituen aldaketek. Jarraian laburtuko ditugu tailerretan jasotako ekarpenetako batzuk.

### Boloniako Plana indarrean sartzeak GLKAPen Programan eragin ditzakeen aldaketak

GHEE indarrean sartzearen eta Boloniako Plana ezartzearen ondorioz, Karrera Amaierako Proiektuetatik (KAP) Gradu Amaierako Lanetara (GAL) igaro gara; horren eraginez, aintzat hartu beharreko aldaketak daude, izan ere, Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAPek orain arte izan duten planteamendua aldarazi baitezakete. Hauexek dira gerta daitezkeen aldaketa batzuk:

- GALEk hainbat lan-modalitate egiteko bidea irekitzen dute, besteak beste: proiektu egituratuak, ikerkuntza-proiektuetan txertatutako ikerketa teoriko eta praktikoak, orain arte titulazio batzuetan eskatzen zirenak baino proiektu sinpleagoak, eta abar.
- GALEk diziplina anitzeko lana ahalbidetu dezakete, titulazio guztietako ikasleek egin behar baitituzte (ez titulazio teknikoetakoek bakarrik).
- Gradu Amaierako Lan bat egin behar da eta, gero, Master Amaierako Lana edo MAL, eta horrek aukera ematen du lehenengoen bitartez lankidetzarekin lehen kontaktua izateko, eta gero Master Amaierako Lanean bide beretik jarraitzeko; bitartean, denbora bat dago ikasleen trebakuntza sakontzeko, eta GALaren bitartez planteatu den proiektuaren hartzaile izan den erakundearekiko harremana ere indartzeko. Lehenago Goi Mailako Ingeniaritza eta Arkitekturetan, eskema hauxe aterako litzateke:

1. FASEA	GAL: Gradu Amaierako Lana (KAP izan ohi zena baino luzera eta irismen txikiagoko lan bat)
BITARTEKO FASEA	Lankidetzako trebakuntza zabaltea / Trebakuntza espezifikoak
2. FASEA	MAL: Master Amaierako Lana (aurrekoaren jarraipena, KAP izan ohi zenaren antzeko lana)

- GALEi buruzko araudi berriak duela gutxi onartu dira, eta oraintxe ari dira martxan jartzen Eskola Teknikoetan. Hauxe da unea haiek analizatzeko, eta lankidetzako proiektuek zer nolako tokia izan dezaketen aztertzeko. KAPetatik GALEtarako trantsizioa laster jarriko da martxan, baina oraindik ere praktikaren bidez baino argitu ez diren galderak gelditzen dira.

GHEE berriaren esparruan, MALez gain, Masterreko praktikak bide egokia izan daitezke garapenerako lankidetzaz bultzatzeko. Halaber, gizarte-erakundeetan boluntario-lanak egiteagatik 6 kreditu lortzeko aukera sartu da gradu guztietan<sup>28</sup>, eta hori ere bide egokia izan daiteke garapenerako lankidetzaz indartzeko (boluntario-lan hori GGKE-etan praktikak eginda gauza daiteke).

<sup>28</sup> Gai horri buruzko argibide zehatzak jasotzeko, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an onartutako gradu ikasketetako kredituak transferitu eta onartzeko arautegia kontsultatzea iradokitzen da: [http://www.ikasleak.ehu.es/p202-shgradct/es/contenidos/informacion/normativas\\_grado/es\\_norm/adjuntos/Normativas%20transferencias.pdf](http://www.ikasleak.ehu.es/p202-shgradct/es/contenidos/informacion/normativas_grado/es_norm/adjuntos/Normativas%20transferencias.pdf)

### Programan trebakuntzak duen garrantziaren inguruan gogoan izan beharreko alderdiak

Trebakuntza, orain arte, gakoetako bat izan da, eta halako KAPetarako erabat beharrezkoa. Etorkizunean ere hala izan behar du, eta horregatik, ideia hauek proposatu dira trebakuntza hori hobetzeko:


- Ikasleen trebakuntza, orain arte, UPV/EHUko Lankidetzaren Bulegoak bultzatzen dituen Ikastaro Monografikoen bidez landu da nagusiki. Trebakuntza hori modu positiboan balioetsi bada ere, GHEEK sartu dituen ikasketetako zeharkako gaitasunen bidez ere landu beharko litzatekeela proposatu da; hala, zentro bakoitzak hartu ahal izango du ardura hori, eta modu formalean landu ahal izango da. Zeharkako gaitasunak GALaren bitartez lantzen dira bereziki, baina graduan zehar ere landu ahal izango lirateke, esaterako, mintegi tematiko txikien eta abarren bitartez. Aukera hori aztertu eta horretarako bideak ikertzea beharrezkoa da..
- Irakasleentzat ere beharrezkoa da trebakuntza, eta ikastaro monografikoak horretarako aukera bat badira ere, praktikan oso irakasle gutxi egiten dituzte. Beraz, beharrezkoa da irakasleen kolektiboarentzat egokiago diren bestelako bide eta formatuak aztertzea.
- Irakasleentzat garapenerako lankidetzari buruzko trebakuntza-jarduerak espezifikoak eta zeharkako gaitasunekin lotutako trebakuntza-jarduerak eskaintzeko aukera aztertu nahi izanez gero, UPV/EHUko aukerarik onena arestian aipatutako HELAZ Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzua izango litzatekeela aipatu da, *on line* ikastaroak emateko plataforma bat baitauka.


### Programaren iraunkortasunari dagokionez aintzat hartu beharreko gaiak

- Lankidetzarako harremanak horizontalak eta elkarrekikoak izatea ere funtsezkoa da halako proiektuek aurrera jarraitu dezaten, eta Programa iraunkorra izan dadin. Horretarako, beharrezkoa da aliantza egonkorak sortzea unean uneko KAPez gain UPV/EHUren eta EAEko GGKE-en artean, Hegoaldeko gizarte-erakunde edota unibertsitateekin, honelako ekintzak sortu ahal izateko:
  - Trebakuntza-jarduerak: udako ikastaroak, ikastaro birtualak, esperientzia-trukerako tailer tematikoak, eta abar.
  - Haien proiektuen esparruan GAL teknikoak edo diziplina anitzekoak (UPV/EHUko hainbat eskolen eta Hegoaldeko Unibertsitateen artean proiektu bateratuak egitea, eta horietan ikasle eta irakasle asko biltzea)
  - Ikerkuntza-, hedapen-, salaketa-proiektuetan eta abarretan laguntzea.
- Gaur arte egindako GLKAP gehienak prozesu geldoen ondoren sortu dira, eta ohiko KAPen aldean, zailtasun gehiago izan dituzte. Horregatik, onuragarri izango litzateke etorkizunerako:
  - Denborak azkartzen saiatzea, eta egungo GALaren modalitatera egokitzea.
  - Halako proiektuen aurrekaririk ez duten Eskoletan lan egitea, edo epaimahaiek proiektu horiek

teknikoki horren onak ez direnaren aurreiritzia duten tokietan, merezi duten moduan balioetsi daitezten.


- Finantzaketa-iturri osagarriak bilatzea, halako proiektu bat egiteagatik ikasleek ez dezaten eduki jasan ezineko zama ekonomikorik.
- Azkenik, esan beharra dago gure inguruan edo “Iparraldean” gizarte-eraldaketarekin lotutako proiektuak (unibertsitatea gizarte-mugimendu eta -erakundeetara hurbiltzen dutenak) eta “Hegoaldeko” gizarte-erakundeekin kolaboratuta egiten direnak zaku berean sartu behar diren ala ez erabakitzean ez dagoela adostasunik, ez dagoela argi guztiak Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAP gisa hartu behar direnik. Hala ere, hauxe esan beharra dago:
  - Oro har, gustuko dugu inguruko arazo sozialetarako irtenbideak aurkitzeko gure unibertsitateetik laquntzearen ideia, eta gainera, Unibertsitatearen eginkizunarekin bat dator.
  - Zenbait irakasle halako proiektuak sustatzen saiatu da, baina zailtasunak izan ditu (departamenduetako barne arazoak, bakardade-sentipena eta babes falta, eta abar) eta, horregatik, are beharrezkoagoa da irakasleengan eragitea eta haiek sentsibilizatzea, gai berri horiek pixkanaka txertatzeko.
  - Proiektu horiek garapenerako lankidetzari berriro kokatu eta testuinguruan sartzeko modua izan daitezke, eta honelako gaiak landuta egin daiteke, esaterako: elikadura burujabetasuna, gaur egun nagusi den ekoizpen- eta kontsumo-ereduarekin lotutako ingurumen-arazoak, edo energia krisia. Izan ere, Hegoaldeko zein Iparraldeko gizarte-erakundeek lantzen dituzte gai horiek.
  - UPV/EHUn ikasleen, karrera teknikoetako irakasleen eta garapenerako lankidetzan edo gizarte-eraldakuntzaren alorrean diharduten erakundeen arteko topaleku bat eskaintzea eta, hala, kolaboraziorako ekimenak zentralizatzea funtsezkoa izango litzateke halako proiektuak bultzatu ahal izateko.











## 5 / ETORKIZUNEAN PROGRAMA HOBETZEKO ONDORIOAK, GOMENDIOAK ETA JARDUERA-ILDOETARAKO PROPOSAMENAK



## 5 / ETORKIZUNEAN PROGRAMA HOBETZEKO ONDORIOAK, GOMENDIOAK ETA JARDUERA-ILDOETARAKO PROPOSAMENAK

### PROGRAMAREN FUNTZIONAMENDUAREN INGURUKO ONDORIOAK, GOMENDIOAK ETA LAN-ILDOAK

Programa izugarri konplexua da; nagusiki, eragile askok parte hartzen duelako, eragile heterogeneoak direlako eta haien banaketa geografikoa dela-eta. Tarteko diren eragileak koordinatu beharrak konplexu egiten du Programa, baina horrez gain, Programak zailtasunak ditu bere barnean prozesu asko eta asko gertatzen direlako, eta horiek ere gauzatu eta koordinatu egin behar direlako: hedapena eta komunikazioa, trebakuntza, kudeaketa. Orain arte, prozesu horiek koordinatzeko ardura, neurri handi batean, ISF-MGIren eskuetan egon da, eta elkartearen barruan berariaz Programarekin lotutako guztiaz arduratu den boluntario-talde bat sortzea lortu bada ere, egia esan talde horrek muga handiak izan ditu urte hauetan sortuz joan diren eskakizunei erantzuteko; hala, Programaren kudeaketa eta koordinazioan hobekuntzarako aukera handia gelditzen da.



Gomendagarria litzateke babes instituzionala edukitzea Programa UPV/EHUren Plan Estrategikoan sartu ahal izateko, gizarte-konpromisoaren atalean; hala, errekonozimendu eta garrantzia handiagoa izango luke unibertsitateko zentro eta kolektiboen artean.



Zentro batean garapenerako lankidetzaren inguruan egindako proiektu kopurua segimendu-adierazle (nahitaezko betebeharra) gisa hartzea UPV/EHUko Ehundu Programarako, hartara zentroek sinatutako konpromiso-agirietan agertu dadin.



Zentro bakoitzean pertsona edo batzorde bat egon dadin bultzatzea, kasuan kasuko Errektoreordetzak gauzatuko lituzkeen Gizarte Erantzukizuneko jarduerak (Berdintasuna, Garapenerako Lankidetzak, Garapen Iraunkorra) transmititu eta dinamizatuko lituzkeena<sup>29</sup>.



Programa barruko eragile bakoitzak betetzen dituen funtzioak berrikustea gomen-datzen da, eta etorkizunean ere lanean jarraitu ahal izan dezaten behar dituzten giza baliabide eta baliabide ekonomikoez hornituko direla ziurtatzea.



UPV/EHUK hizpide dugun Programarako aurrekontu-partida bat ziurtatzea, hura finkatu eta iraunarazteko behar diren giza baliabide eta baliabide ekonomikoak bermatuko dituena.



Programaren inguruan lan egiten duten boluntarioen lan-taldeko lider izango den ISF-MGIko teknikari liberatu bat egongo dela ziurtatzea.



<sup>29</sup> Gaur egun Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetza da: <http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p268-rshm/es/> [azken kontsulta-data 2013/11/04]

Gaur arte egindakotik ikasi dugun guztia jaso den unean, hain zuzen ere Boloniako Prozesua ezartzen ari den unean, aldaketa eta erronka berri ugari sortu dira, eta tarteko diren eragile guztien laguntza behar da haiei aurre egiteko.



UPV/EHUko eskola teknikoek GALen inguruan onartu dituzten araudi berriak, orokorrak zein espezifikoak analizatzea, eta Programa GHEE berrira egokitzea.



Eskola teknikoetako irakasleekin elkarrizketarako espazioak sortzea, egungo ikasketa-planen indargune eta aukerak aztertzeke, eta zentro bakoitzean Programaren prozesua ikasketa-plan horietara egokitzeke.



GHEE iritsi izanak ekarri duen modalitateen, irismenen eta diziplinen irekierak sortu dituen aukerak aztertzea.



MALeK eta gizarte-erakundeetako boluntario-lanaren kredituek Programari zer nolako ekarpena egin diezaioketen eta nola aberastu dezaketzen aztertzea.



Lankidetzaren inguruko Gradu Amaierako Lanetan gizarterako eraldatzaileak diren bestelako proiektuak sar daitezzen planifikatzea eta, hala, euskal gizartea eta EAEko elkarrekin kezkutzen dituzten arazo soziopolitikoei erantzuna emango dioten ekimenei lekua ematea.



Lankidetzaren inguruko GAL Programaren eta UPV/EHUko beste ekimen batzuen arteko sinergiak bilatzea, esaterako IKD<sup>30</sup> programarekin, hots, gizarte- eta komunitate-ingurunearekin eta iraunkortasunarekin konprometituta dauden ekimenekin.



Hausnarketa, sentsibilizazio eta eraginerako espazioak sortzea, hartara irakasleriak eta Hegoalde zein Iparraldeko gizarte-erakundeek garapenerako lankidetzari berriro kokatu eta berriro bere testuinguruan sar dezaten, eta erakunde horiek hainbat alorretan egindako lana baliatzeko; esaterako, elikadura burujabetzan, egun nagusi den ekoizpen- eta kontsumo-ereduarekin lotutako ingurumen eraginetan, energiaren krisian eta beste hainbat alorretan egindakoa.



<sup>30</sup> IKD irakaskuntza eta ikaskuntza kooperatibo eta dinamikorako ereduak etengabeko prozesu bat eskatzen du, eta prozesu horren bitartez UPV/EHUk konpromisoa hartzen du inguru sozial eta komunitarioarekin, bokazio publikoaz eta iraunkortasun ekonomiko eta soziala ardatz hartuta, ekitate eta inklusio balioak sustatzeko. Argibide guztiak eskuraqarri daude IKDren web-orrian: [http://www.ikasketa-berrikuntza.ehu.es/p272-shikdct/es/contenidos/informacion/ikd\\_desarrollo\\_territorial/es\\_territ/desarrollo\\_territorial.html](http://www.ikasketa-berrikuntza.ehu.es/p272-shikdct/es/contenidos/informacion/ikd_desarrollo_territorial/es_territ/desarrollo_territorial.html) [azken kontsultaren data 2013/11/04]

## PROGRAMAKO TREBAKUNTZAREN INGURUKO ONDORIOAK, GOMENDIOAK ETA LAN-ILDOAK

ISF-MGIk eskaintzen dituen trebakuntza-jarduerak (Lankidetzak eta Giza Garapenerako Teknologien sarrerarako ikastaro monografikoak, Garapena, Lankidetzak eta Teknologiarik buruzko Mintegiak, ikasleentzako, irakasleentzako eta gizarte-erakundeentzako esperientzia-tailerak...) modu positiboan balioesten dituzte parte-hartzaileek.



ISF-MGIren trebakuntza-ildoari eustea, hura indartzea eta etengabeko hobekuntzak ezartzea.



Ebaluazioa trebakuntza-prozesuetako hobekuntzarako tresna gisa sartzea.



Trebakuntza-prozesuetan metodologia parte-hartzaileen erabilera sakontzea.



Trebakuntza-ildoetako irakaskuntza eta ikaskuntzarako teknologia berriak eta prozesu berritzaileak sartzea.



Trebakuntza-prozesuetan erabilitako metodologiaren eta irakaskuntza kooperatibo eta dinamikoaren ereduaren artean sinergiak bilatzea; esaterako, UPV/EHUko Kalitate eta Ikasketak Berrikuntzarako Errektoreordetzak bultzatutako ERAGIN<sup>31</sup> programarekin.



Irakasleak gai jakin batzuen inguruan trebatzeko beharra hauteman da; esaterako, garapenerako lankidetzak edo generoak, eta trebakuntza hau haien parte-hartzea sustatuko duten formatu egokietan eskaintzeko beharra.



Irakasleentzako trebakuntza-programetan eraqitea, Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizunarekin eta Garapenerako Unibertsitate Lankidetzarekin lotutako eskaintza espezifikoa sar daitezten, eta errekonozimendu akademikoa izan dezaten.



Trebakuntzarako proposamen bat prestatu eta UPV/EHUko SEA/HELAZ Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuarik<sup>32</sup> aurkeztea.



Trebakuntza hori UPV/EHUko IIParen Trebakuntza eta Dedikazio Akademikoaren Plana Eguneratzeko jarduerak gisa har dadin lan egitea.



<sup>31</sup> ERAGIN Irakaskuntzarako Metodologia Aktiboetan Prestatzeko Programa UPV/EHUko Kalitate eta Ikasketak Berrikuntzarako Errektoreordetzak bultzatzen du. SAE-HELAZ Hezkuntza Laguntzarako Zerbitzuaren bitartez. Programari buruzko informazio guztia eskuragarri dago hemen: <http://www.ehu.es/ehusfera/helaz/eragin/> [azken kontsultaren data 2013/11/04]

## PROGRAMAKO GENERO-IKUSPEGIAREN INGURUKO ONDORIOAK, GOMENDIOAK ETA LAN-ILDOAK

Garapenerako lankidetzan KAP egiten duten ikasleen artean sexuen arteko parekotasuna bada ere, irakasleen kasuan ez dago inolako parekotasunik, eta askoz ere emakumezko tutore gutxiago dago proiektuetan.



Garapenerako Lankidetzaren inguruko KAPak tutorizatzen emakumezko irakasleek parte har dezaten sustatzea.



Programarekiko interesa agertu duten emakumezko irakasleen kontaktuak ikasleei ematea.



Emakumezko irakasleekin zuzeneko komunikazioa edukitzea, eta haien ondoan egotea, halako proiektuetako tutore izatera anima daitezten.



Programan parte hartzen duten eragile guztiek pentsatzen dute genero-ikuspegia zeharka ezarri behar dela, baina orain arte modu puntualean baino ez da landu gaia.



Programan parte hartzen duten eragileei genero-ikuspegiari buruzko trebakuntza espezifikoak ematea.



Ikasleentzako trebakuntza-ibilbide bat ezartzea, ibilbide horretan genero-ikuspegia zeharka txertatzea, eta gainera, generoari buruzko saio espezifikoak eskaintzea.



Interesa duten irakasleentzako trebakuntza-ibilbide espezifiko bat diseinatzea.



Erakunde feministekin aliantzak ezartzea: euskal gizarte-mugimendu eta GGKE-ekin, zein Hegoaldeko gizarte-erakundeekin.



Iparralde eta Hegoaldeko erakunde feministekin harremanetan jartzea, haiei Programa ezaqutzero emateko, eta balizko lankidetzak aukerak aztertzeke.



interesa duten erakundeekin Programaren inguruko lankidetzak-hitzarmenak ezartzea.



<sup>32</sup> UPV/EHUKO SEA/HELAZ Hezkuntza Laguntzarako Zerbitzua irakaskuntzarako laguntza-zerbitzu bat da, eta unibertsitatearen hiru campusetan koordinatu eta eskaintzen da; besteak beste, IIPri zuzendutako trebakuntza-jarduerak antolatzen ditu. Argibide guztiak eskuragarri daude SAE/HELAZ-en web-orrian: <http://www.ehu.es/ehusfera/helaz/> [azken kontsultaren data 2013/11/04]

## PROGRAMAN SAREAN LAN EGITEAREN INGURUKO ONDORIOAK, GOMENDIOAK ETA LAN-ILDOAK

GLKAP bakoitzean eragile askok hartzen dute parte, eta proiektua aurrera ateratzeko, harreman ugari izan behar dira: alabaina, sarean lan eginda baino ezin da lortu hori. Hala ere, komunikazio erraz eta integratu falta hauteman da guztien artean, eta unibertsitateko munduaren erritmo eta denborak garapenerako lankidetzaren mundukoekin bateratzeko zailtasunak ere bai.



Programan parte hartzen duten eragileen arteko komunikazioa hobetzeko neurriak hartzea, unibertsitatea eta garapenerako lankidetzaren mugimendua elkarri hurbiltzeko beharra nabarmenduta.



ikasle, irakasle eta GGKE-en artean harreman erraza egon dadin eta sarean lan egin dadin sustatzea. Horretarako, elkarrekin bilerak egitea (ideala hiru egitea izango litzateke: hasierakoa, bitartekoa eta amaierakoa), eta bilera horietan komunikazio-bideak ezarri eta GAL egin bitartean elkarrekin lan egiteko oinarriak finkatzea.



GALean parte hartuko duten eragile guztiekin (ISF-MGI barne) gutxienez hasierako bilera bat egitea, esperientziak irauten duen bitarterako lanerako plan zehatz bat definitzeko.



Prozesu osoan zehar informazio-elikadura, segimendua eta ebaluazioa ahalbidetuko dituzten bide eta prozedurak ezartzea.



ISF-MGIk Programa koordinatzen eman dituen urteotan ikasi dugu gauzatzen diren KAPEz gain, Garapenerako Unibertsitateko Lankidetzarako bestelako ekintzak ere sortzen direla askotan, eta hala, proiektuan parte hartzen dutenen eta oro har UPV/EHuren jarduera akademikoak osatu egiten direla. Lankidetzarako harremanak horizontalak eta elkarrekikoak izatea ere funtsezkoa da halako proiektuek aurrera jarraitu dezaten, eta Programa iraunkorra izan dadin.




Beharrezkoa da aliantza egonkorrak sortzea unean uneko KAPEz gain UPV/EHuren eta EAEko GGKE-en artean, eta Hegoaldeko gizarte-erakunde edota unibertsitateekin.



Iparralde zein Hegoaldeko unibertsitate eta GGKE-ekin hitzarmenak zehaztu eta ezartzea, eta horiei esker, gaitasunak garatzera, erakundeak indartzera eta ezagutzak sortu eta trukatzera zuzendutako jarduerak ahalbidetzea:



- Trebakuntza-jarduerak: udako ikastaroak, ikastaro birtualak, esperientzia-trukerako tailer tematikoak, eta abar.
- Haien proiektuen esparruan GAL teknikoak edo diziplina anitzekoak (UPV/EHUko hainbat eskolen eta Hegoaldeko Unibertsitateen artean proiektu bateratuak egitea, eta horietan ikasle eta irakasle asko biltzea)
- Ikerkuntza-, hedapen-, salaketa-proiektuetan eta abarretan laguntzea.



## BIBLIOGRAFIA



## BIBLIOGRAFIA

Amiano, I. eta Gutiérrez, J. (2013): *Las universidades como agentes de cooperación al desarrollo descentralizada: el caso del País Vasco. VI Congreso CUD. Valentzia*

Calero, V., Fernández, S. eta Villena, U. (2013): *Propuestas para la transversalización del enfoque de género en el Programa de Proyectos Fin de Carrera en Cooperación para el Desarrollo de la UPV/EHU. I Jardunaldiak Garapenerako Hezkuntzari buruz. UPNA. Iruña. [Hemen eskuragarri: [http://www.unavarra.es/digitalAssets/184/184603\\_LIBRO\\_Actas-I-Jornadas-Universidad-y-EpD.pdf](http://www.unavarra.es/digitalAssets/184/184603_LIBRO_Actas-I-Jornadas-Universidad-y-EpD.pdf), azken kontsultaren data 2013/08/29]*

CEURI-CRUE (2000): *Estrategia Universitaria de Cooperación al Desarrollo. CRUE. Kordoba. [Hemen eskuragarri: <http://www.ocud.es/sites/default/files/ESCUDE2000.pdf>, azken kontsultaren data 2013/08/29]*

CEURI-CURE (2006): *Código de conducta de las Universidades españolas en materia de Cooperación al Desarrollo [Hemen eskuragarri: <http://www.ocud.es/sites/default/files/CODIGOCONDUCTA.pdf>, azken kontsultaren data 2013/08/29]*

Mataix C. eta Sánchez E. (2006): *Oportunidades para la colaboración entre ONGD y Universidades Arias S. eta Molina E. (koord.-ak) Cuadernos Solidarios N° 1: Universidad y Cooperación al Desarrollo, UAM Ediciones. Madril.*

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzeta Bulegoa (2012): *Garapenerako Lankidetzeta UPV/EHU. O Diagnostikoa. Argitaratu gabea [Eskuragarri hemen: [http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p268-shocdct/es/contenidos/informe\\_estudio/cooperacion\\_memorias\\_informes/es\\_coopera/adjuntos/Diagnostico\\_O\\_UPVEHU\\_OFICOP\\_110511.pdf](http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p268-shocdct/es/contenidos/informe_estudio/cooperacion_memorias_informes/es_coopera/adjuntos/Diagnostico_O_UPVEHU_OFICOP_110511.pdf), azken kontsultaren data 2013/08/29]*

Pérez de Armiño, K. (zuz.) (2000): *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo. Icaria eta Hegoa. Bartzelona.*


Sainz de Murieta, J., Lecanda, X., eta Burgos, A. (2008): *Análisis del potencial de colaboración entre las escuelas de ingeniería de la UPV/EHU y las ONGD de la CAE. IV Congreso Universidad y Cooperación al Desarrollo, 75-76.*

Unceta, K. (2007): *La Cooperación al Desarrollo en las Universidades Españolas. AECID/MAEC. Madril. [Hemen eskuragarri: <http://www.aecid.es/galerias/cooperacion/Cultural/descargas/O3-Coop.Universidades.pdf>, azken kontsultaren data 2013/08/29]*

UPV/EHU. (2011): *2011-2012 Jardueren Egitaraua. EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Hemen eskuragarri: [http://www.ehu.es/p200-content/es/contenidos/informacion/cons\\_direct/es\\_inf/Actividades%20cast.pdf](http://www.ehu.es/p200-content/es/contenidos/informacion/cons_direct/es_inf/Actividades%20cast.pdf), azken kontsultaren data 2013/08/29]*

UPV/EHU. (2012): *Unibertsitatea Zenbakitan 2010-2011. EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Hemen eskuragarri: [http://www.ehu.es/p200-shstatct/es/contenidos/estadistica/universidad\\_cifras\\_2010\\_2011/es\\_cif\\_2010/adjuntos/Memoria\\_Cast.pdf](http://www.ehu.es/p200-shstatct/es/contenidos/estadistica/universidad_cifras_2010_2011/es_cif_2010/adjuntos/Memoria_Cast.pdf), azken kontsultaren data 2013/10/10]*





# ERANSKINAK



**ERANSKINAK****I. ERANSKINA: IKASLEEI EGINIKO INKESTAREN GALDERA-SORTA ETA BURUTU DIREN KAPEI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA****Inkestaren galdera-sorta****OINARRIZKO DATUAK.****Ikaslea**

- Izen eta abizenak:
- Bizi zaren udalerria:
- Harremanetarako telefonoa:
- Harremanetarako posta elektronikoa:

**Ikasketak burutzen ari diren edo burutu ziren unibertsitate-ikastegiaren datuak**

- Unibertsitate-campusa:
- Eskola edo fakultatea:
- Titulua:
- Intentsifikazioa edo espezializazioa:

**Karrera Amaierako Proiektua Lankidetzan**

Hemendik aurrera, galdera-sorta guztian zehar, Karrera Amaierako Proiektuak Lankidetzari buru hitz egiterakoan KAPL laburdura erabiliko da.

- KAPLren izenburua:
- Helmugako herrialdea:
- Irteera data:
- Itzultze data:
- KAPLren deskribapen laburra:
- Genero ikuspegia kontutan eduki zen proiektuaren karakterizazioa burutzeko orduan?

**UPV/EHUko IKASLE TUTOREAREKIN HARREMANA.**

KAP burutzeko arauak ikastegi bakoitzaren arabera aldatu egiten direnez zenbait kasutan proiektuek bi tutore izango dituzte eta beste batzuetan bakarra. Azkeneko kasu honetan tutore teknikoa soilik baloratu.

### Tutore teknikoa

- Izen eta abizenak:
- Saila:
- Harremanetarako posta elektronikoa:
- Jasotako laguntza 1tik 5ra baloratu (gehienezko puntuazioa 5a izanik):
- Zein alderdietan lagundu zaitu?
- Oharrak eta hobetu daitezkeen alderdiak:
- Hobekuntza proposamenak:

### Katedra tutorea

- Izen eta abizenak:
- Saila:
- Harremanetarako posta elektronikoa:
- Jasotako laguntza 1tik 5ra baloratu (gehienezko puntuazioa 5a izanik):
- Zein alderdietan lagundu zaitu?
- Oharrak eta hobetu daitezkeen alderdiak:
- Hobekuntza proposamenak:

## HELMUGAKO HERRIALDEKO EGONALDIAREN INGURUAN HANBAIT ALDERDIEN BALOZARIOA.

### Helmuğako herrialdeko harrera erakundearekin kontaktua

Harrera erakundearen izena:

Harrera erakundeoko tutorearen izen eta abizenak:

Harremanetarako posta elektronikoa:

Harremanetarako telefonoa:

Jasotako laguntza 1tik 5ra baloratu (gehienezko puntuazioa 5a izanik):

Helmuğa herrialdera joan aurretik:

Helmuğa herrialdeko egonaldian:

Helmuğa herrialdeko egonaldia bukatu eta gero:

Zein alderdietan lagundu zaitu?

Oharrak eta hobetu daitezkeen alderdiak:

Hobekuntza proposamenak:

## Helmugako herrialdeko egonaldiaren balorazioa

Hurrengo alderdiak 1tik 5ra baloratu, 5a gehiegizko balorazioa izanik:

- Osasun zerbitzuak (Osasun zerbitzuak erabili badituzu erantzun soilik):
- Hiri segurtasun eta segurtasun politikoa:
- Onuradun pertsonekin edota proiektuan parte hartu duten pertsonekin (banakakoak, komunitatea, agintariak) izandako erlazioa.
- Egonaldian zehar egindako lana eta LKAPri osagarriak direnak:
- Egon zaren herrialdean egindako lana nola baloratzen duzu?
- Oharrak eta hobetu daitezkeen alderdiak:
- Hobekuntza proposamenak:

### EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO GGKEREKIN HARREMANA

- Erakundearen izena:
- GGKEko pertsona tutorearen izena:
- Harremanetarako posta elektronikoa:
- Harremanetarako telefonoa:
- Jasotako laguntza 1tik 5ra baloratu (gehienezko puntuazioa 5a izanik):
  - Helmugako herrialdera bidaiatu aurretik:
  - Helmugako herrialdean egondako denboran zehar:
  - Helmuğa herrialdeko egonaldia bukatu eta gero:
- Zein alderdietan lagundu zaitu?
- Oharrak eta hobetu daitezkeen alderdiak:
- Hobekuntza proposamenak:

### INGENIERÍA SIN FRONTERAS DEL PAÍS VASCO - EUSKAL HERRIKO MUGARIK GABEKO

#### INGENIARITZAREKIN HARREMANA

Erantzun baldin eta Euskal Herriko MGIak bitartekari bezala parte hartu badu.

- Hurrengo alderdiak 1tik 5ra baloratu (gehienezko puntuazioa 5a izanik):
  - LKAPen programaren difusioa:
  - Prozesuan zehar jasotako harreta:
  - Prozesuan zehar agertutako galderen aurrean izandako erantzun denborak:

- Aldez aurreko prestakuntza (Sarrera kurtsoa edota seminarioa):
- Zein alderdietan lagundu zaitu?
- Oharrak eta hobetu daitezkeen alderdiak:
- Hobekuntza proposamenak:

**UPV/EHUko GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOAREKIN HARREMANA**

**Praktikak eta Karrera Amaierako Proiektuak Garapenerako Lankidetzaren programaren balorazioa.**

- Hurrengo alderdiak 1tik 5ra baloratu (gehieneko puntuazioa 5a izanik):
  - Programaren difusioa:
  - Programaren inguruko informazioaren (baldintzak, galdera-sortak...) eskuragarritasuna.
  - Diru-laguntzaren zenbatekoa:
  - Aldez aurreko formazioa (UPV/EHUko kurtso monografikoak):
  - Jasotako administrazio-arreta:
- Helmugetako herrialdeko egonalditik itzultzean, esperientziaren balorazio galdetegia entregatu zenuen Garapenerako Lankidetzako bulegoan?
- Oharrak eta hobetu daitezkeen alderdiak:
- Hobekuntza proposamenak:

**ESPERIENTZIAREN BALORAZIO PERTSONALA**

- Zure helburu pertsonalen zein betetze maila izan du LKAP programaren garapena?

	Altua	Onargarria	Baxua	Ezer ere ez
MAILA AKADEMIKOAN				
MAILA PERTSONALEAN				
PROFESIONAL MAILAN				

- Zure eskola edo ikastegian KAPren izaera "berezia" dela eta arazoren bat (tutorea aurkitzeko orduan, defentsa egiterakoan, balorazio akademikoan...) izan zenuen edo izaten ari zara?
- Zure KAPren gauzatzearen inguruan, zein da gaur egungo egoera?

Ezin da gauzatu

Gauzatua izan daiteke baina ez dituzte hori betetzeko beharrezkoak diren baliabideak (giza baliabideak, ekonomikoak, politikoak...).

Gauzatua izan da edo izango da.

Beste batzuk.

- Beste batzuk hautatu baduzu azaldu zeintzuk diren arrazoi horiek:
- Proiektua gauzatu bazen edo gauzatuko bada, nola bermatu zen edo bermatuko da emakumeen parte hartzea?
- Proiektua ekipo tekniko baten bidez gauzatu bazen edo gauzatuko bada, zenbat emakume eta zenbat gizon egon ziren edo egongo dira talde horretan?
- LKAPa egiteak Lankidetzaren mundura era baten edo bestean lotu zaitu?


Bai, Ingeniería Sin Fronteras del País Vasco- Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritzako boluntario moduan.

Bai, beste erakunde baten kide moduan.

Bai, Lankidetzaren mundura profesionalki lotuz.

Ez.

- Oharrak eta hausnartze pertsonalak:



## Burutuako kap proiektuen oinarritzko informazioa

Ikasturtea	KAP izenburua	Egilea	Ikastegia	Tutorea	GGKE	Helmugako erakundea	Herrialdea	Inkesta
2004-2005	Diseño de un suministro energético en una comunidad rural aislada en Guatemala mediante la instalación de una central micro hidroeléctrica	Alvaro Fernández-Balder Martínez	E.T.S.I. Bilbao	Rafael Monterde (Univ. Politécnica de Valencia)	PNUD	PNUD	Guatemala	BAI
2005-2006	Diseño de Horno Solar para cocción de pan en Haití	Raúl Larriba Bartolomé	E.T.S.I. Bilbao	Felix Mendia Urquiola Fermin Gorostiaga Acha	Euskal Herriko MGI	ISF Pais Vasco	Haiti	BAI
2006-2007	Proyecto de construcción de red de distribución de agua para Laguna Seca en Guatemala I	Patricia Zabala Corcuera	E.U. Politécnica Donostia	Jabier Almandoz Berrondo Idoia Pellejero Salaberria	DOA (Denok Osasunaren Alde)	Ayuntamiento de Quesada	Guatemala	BAI
2006-2007	Proyecto de ejecución de red de distribución de agua para Laguna Seca en Guatemala II	Sabino Arana Castaño	E.U. Politécnica Donostia	Jabier Almandoz Berrondo Idoia Pellejero Salaberria	DOA (Denok Osasunaren Alde)	Ayuntamiento de Quesada	Guatemala	BAI
2006-2007	Estudio del suministro eléctrico de la aldea rural aislada Laguna Seca	Aitor Gómez Arribiaga	E.T.S.I. Bilbao	Amalia Arrinda Sanzberro Imanol Madariaga Longarai	DOA (Denok Osasunaren Alde)	Ayuntamiento de Quesada	Guatemala	BAI
2006-2007	Guatemalako landa-herrixka bateko hezkuntza eta osasun barrutirako energia berriztagarrien bidezko elektrizitate sorkuntzarako sistema	Unai Villena Camarero	E.T.S.I. Bilbao	Igor Albizu Florez Jaime Kortabarría Onandia	DOA (Denok Osasunaren Alde)	ADECO Guatemala	Guatemala	BAI
2006-2007	Estudio de campo y cálculo para la instalación de una red de abastecimiento de agua potable en el centro nutricional de San Ixtan	Aintzane Merino Orta	E.U. Politécnica Donostia	Jabier Almandoz Berrondo	DOA (Denok Osasunaren Alde)	Ayuntamiento de Quesada	Guatemala	EZ
2006-2007	Estudio de campo y cálculo para la instalación de una red de abastecimiento de agua potable en el centro nutricional de San Ixtan	Estibalitz Goikoetxea Miranda	E.U. Politécnica Donostia	Jabier Almandoz Berrondo	DOA (Denok Osasunaren Alde)	ADECO Guatemala	Guatemala	BAI
2008-2009	Estudio y diseño de unidad de tratamiento de aguas residuales del barrio Molino Belén, en Solola	Jon Andoni Vicario Albión	E.U.I.T.I. Bilbao	Juan Esteban Larauogotia Alzaga	Lagun Artean	Municipalidad de Solola	Guatemala	BAI

## Burutuako kap proiektuen oinarritzko informazioa (jarraipena)

Ikasturtea	KAP izenburua	Egilea	Ikastegia	Tutorea	G-GKE	Helmugako erakundea	Herrialdea	Inkesta
2008-2009	*NOTA: a pesar de que hubo viaje a terreno por parte de la alumna, finalmente no llegó a finalizar el PFC	Miren Lanz Solbes	E.U. Politécnica Donostia	Rubén Jiménez Redal	Medicus Mundi Bizkaia		Congo	EZ
2008-2009	Evaluación del ciclo de los proyectos ejecutados por Medicus Mundi Bizkaia en el ámbito del Agua y Saneamiento	Raquel Clemente Pereiro	E.U. Politécnica Donostia	Rubén Jiménez Redal	Medicus Mundi Bizkaia	COFORWA y UGAMA	Ruanda	EZ
2008-2009	Proyecto de Cooperación al Desarrollo: desarrollo rural mediante empoderamiento de la mujer para el derecho humano al agua	Bingen Durá Saucá	E.U. Politécnica Donostia	Rubén Jiménez Redal	IC-LI (Ingeniería para la Cooperación- Lankidetzarako Ingeniaritza)	WUKRO development project	Etiopia	BAI
2008-2009	Optimización de un biodigestor de residuos ganaderos en Lastur	Paul Koechlin	E.T.S.I. Bilbao	Pedro Luis Arias Arqueta	ISF País Vasco	Asociación Argi ta Garbi	Euskadi	BAI
2009-2010	Diseño de sistema de suministro y distribución de energía eléctrica para centro escolar y dispensario médico en Comunidad de Malnobre, Santo Domingo, República Dominicana	Itziar Lecanda García	E.T.S.I. Bilbao	Gorka Bueno Mendieta Antonio José Salgado Saenz	ISF País Vasco	Asociación para la Educación y Desarrollo Integral Giron Paredes	República Dominicana	BAI
2009-2010	Planta de Tratamiento de Aguas Residuales de Torola	Sergio Martínez Cuesta	E.U.T.I. Bilbao	Iñigo Albaina López	Paz con Dignidad	SABES (Saneamiento Básico y Educación Sanitaria)	El Salvador	BAI
2009-2010	Microcentral Hidroeléctrica San Antonio	Antonio Sandá Mena	E.T.S.I. Bilbao	Pablo Eguía López Antonio José Salgado Saenz	Paz con Dignidad	ACUA (Asociación Comunitaria Unida por la Agricultura y el Agua)	El Salvador	BAI
2009-2010	VIPENA VIMUTU - Elbarrituentzako Zentroa Boliviako Amazonian	Jokin Sánchez Fernández	E.T.S.A. San Sebastián	Lauren Etxepare Iñiz	DOA (Denok Osasunaren Alde)	Fundación para el desarrollo de Moxos	Bolivia	BAI
2009-2010	Creación de un centro de Investigación en Santa Cruz de la Sierra, Bolivia	Marta Requena Gutierrez	E.T.S.A. San Sebastián	Luis Ramón Sesé Madrazo	Arquitectos Sin Fronteras	Hombres Nuevos	Bolivia	EZ



2009-2010	Diseño de red inalámbrica IEEE802.11g para interconectar siete comunidades del Río Cayapas, provincia de Esmeraldas	Koldo Redondo Serrano	E.T.S.I. Bilbao	Andoni Lazkano Bilbao	ADSI	PUCESE (Pontificia Universidad Católica de Ecuador, sede Esmeraldas)	Ecuador	BAI
2009-2010	Proyecto de identificación de una solución técnica para la construcción de superficies de carreteras con mayor capacidad portante para el Distrito de Montepuez (Mozambique)	Laura Flores Marcelo	E.U. Politécnica Donostia	Rubén Jiménez Redal	Mundukide Fundazioa	Fundação Mundukide	Mozambique	EZ
2010-2011	Biodigestor de bajo costo en la granja Escuela de Menteh	Paula Jaureguibeltia	E.T.S.I. Bilbao	Belén Güemez Bilbao	Fundación Itaka Escolapios	Fundación Itaka Escolapios	Camerún	BAI
2010-2011	Proyecto de pavimentación de una carretera en el Departamento del Suroeste (Haiti)	Ane Aroitaurequi Barrietabena	E.U. Politécnica Donostia	Rubén Jiménez Redal	ISF País Vasco	MML	Haiti	EZ
2010-2011	Mejora de la educación a través de la construcción de un complejo educativo de módulos de formación y ocupación en el distrito de Punta Negra, Departamento de Lima, Perú	Paula Amatriain Cornago	E.U. Politécnica Donostia	Rubén Jiménez Redal	Punta Negra D.E.S.E.A	Club de Madres Punta Negra	Perú	EZ
2010-2011	Mejora de la educación a través de la construcción de un complejo educativo de módulos de formación y ocupación en el distrito de Punta Negra, Departamento de Lima, Perú	Mikel Fernandez de la Bastida Gómez	E.U. Politécnica Donostia	Rubén Jiménez Redal	Punta Negra D.E.S.E.A	Club de Madres Punta Negra	Perú	EZ
2010-2011	Evaluación de la calidad del agua de las comunidades de la cuenca del río Ostua para el establecimiento de la posible afección debido a la extracción minera	Sira Goñi Lazcano	E.T.S.I. Bilbao	Estilita Ruiz Romera	Paz con Dignidad	CEICOM	El Salvador	BAI
2010-2011	Estudio del Sistema de abastecimiento de agua en el Distrito de Marrupa (Mozambique)	Miren Tellería Ajuriageerra	E.U. Politécnica Donostia	Rubén Jiménez Redal	Mundukide Fundazioa	Fundação Mundukide	Mozambique	EZ
2010-2011	Asesoramiento en abastecimiento de agua y gestión de una huerta escolar en Asosação Mattsatse, Mozambique	Joaquín Albisua Embil	E.U. Politécnica Donostia	Rubén Jiménez Redal	Hauralde Fundazioa	Asosação Mattsatse	Mozambique	EZ
2010-2011	Diseño del centro de promoción de la mujer de Río Muni, Distrito de Cogo, Guinea Ecuatorial	Ane Hernandez Pérez de Guereño	E.U. Politécnica Donostia	Rubén Jiménez Redal	AAMI (Asociación Africanista Manuel Iradier)	Asociación de Mujeres de Cogo Wangari Maathai	Guinea Ecuatorial	EZ
2011-2012	Sistema de pasteurización solar de bajo coste	Jonatan Cambronel Martin	E.U.T.I. Eibar	Alain Ulaiza Manterola	Paz con Dignidad	ACUA (Asociación Comunitaria Unida por la Agricultura y el Agua)	El Salvador	EZ

6. Taula: 2004/2005 eta 2012/2013 ikasturteen artean UPV/EHU egindako Karrera Amaierako Proiektuak Garapenerako Lankidetzan inguruko oinarrizko informazioa.

## **II. ERANSKINA: IRAKASLEEKIN EGINDAKO ELKARRIZKETETAKO GALDETEGIA ETA EGINDAKO ELKARRIZKETA INGURUKO OINARRIZKO INFORMAZIOA**

### **KAPLEN MAILA AKADEMIKOAREN INGURUKO GALDERAK**

Zeintzuk dira ohizko eta lankidetzako KAPen arteko ezberdintasunak zure ustez?

Nola baloratzen duzu KAPLen kalitate akademikoa?

Lankidetzako KAO ohizkoekin konparatuz arazo gehiago eratzen dituzte? Zeintzuk?

### **PARTE HARTU DUTEN ERAGILEEKIN IZANDAKO ERLAZIOAREN BALORAZIOA**

Ze ekarpen egiten du eragile bakoitzak? Nola dira elkarrekin osagarriak?

Noizero egiten dira bilerak? Zein izango zen denboraldi egokiena?

Nola baloratzen da irakasle eta ikaslearen arteko erlazioa? (1tik 5rako eskalan)

### **BEHARREZKOA DEN LANKIDETZAKO FORMAZIOAREN INGURUKO GALDERAK**

Zenbaterainoko beharrezkoa da ikasleak aurrez aldeko Lankidetzan formazioa izatea?

Zein da iritzia irakasleen formazioaren inguruan ? zeintzuk izango liriateke formatu egokienak aurrera eraman ahal izateko formazio hori?

### **BALORAZIO PERTSONALA**

Ze ekarpen egin dizu KAPLren zuzendaritzak?

### **ETORKIZUNEAN PROGRAMA HOBETZEKO PROPOSAMENAK**

Nola sustatuko ahalko zen Programa ikasle eta GGKEen artean?

Zer egin daiteke irakasleen interesa eta parte-hartzea bultzatzeko?

### **GENERO IKUSPEGIAREN INGURUAN**

Nola barneratzen da Programan?

Uste duzu generoa zeharkako gaia izan daitekeela?

Hau nola egin daitekeen inguruko proposamenik baduzu?

**ELKARRIZKETATURIKO IRAKASLEAK: IZENA ETA ABIZENAK, SAILA (ELKARRIZKETAREN DATA ETA LEKUA)**

- Ruben Jimenez Redal, Ingeniaritza Nuklearra eta Jariakinen Mekanika saila (2013/o2/07, Donostiako Eskola Politeknikoan)
- Amaia Arrinda Sanzberro, Electronika y Telekomunikazioko saila (2013/09/24, Bilboko Ingeniaritza G.E.T.)
- Rikardo Minguez Gabiña, Adierazpen Grafikoa eta Ingeniaritzako Proiektuak sailak (2013/09/24, Bilboko Ingeniaritza G.E.T.)

**III. ERANSKINA: ESPERIENTZIA-TAILERRETAKO PROGRAMAK ETA BAKOITZEAN****LANDUTAKO GAIEN LABURPENA****Esperientzia-tailerretako programak****IRAKASLEEI ZUZENDUTAKO TAILERRA.**

**Eguna:** 2013ko urriak 23, asteartea

**Tokia:** Bilboko Ingeniaritza GET. P1G1 gela

**Ordua:** 11:00-13:00

**TAILERRAREN PROGRAMA (AURREIKUSITAKO DENBORAK)**

- **Programaren aurkezpena (15 min):**
  - Unai Etxebarria. Garapenerako Lankidetzak Bulegoko teknikari arduraduna
  - Unai Villena. ISF-MGIko Garapenerako Heziketa teknikaria
- **Ikaslearen ikuspuntua (25 min):**
  - Telekomunikaziotan Ingeniaria. Bilboko Ingeniaritza GETeko ikasle ohia. Bere KAPa azalduko digu *Diseño de Red Inalámbrica IEEE802.11G para interconectar siete comunidades del río Cayapas, provincia de Esmeraldas, Ecuador.*
- **GGKEaren ikuspuntua (25 min):**
  - Rikardo Minguez. Adierazpen Grafikoa eta Ingeniaritza Proiektuen Saileko irakaslea Bilboko Ingeniaritza GETean eta Medicus Mundi Bizkaia erakundeko kidea. Donostiako UE Politeknikoko bi ikaslek burututako *“Evaluación del ciclo de los proyectos ejecutados por Medicus Mundi Bizkaia en el ámbito del agua y saneamiento. Ruanda y RD Congo”* KAPari buruzko xehetasunak emango ditu.
- **Tutorearen ikuspuntua (25 min):**
  - Ortzi Akizu. Adierazpen Grafikoa eta Ingeniaritza Proiektuen Saileko irakaslea Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza UEan eta Felix Baltistan Fundazioko kidea. Bere erakundeak Pakistanen, K2aren magalean, bultzatu dituen energiarekin zerikusia duten KAP eta ikerkuntza proiektuei buruz hitz egingo du (biomasa sukaldeak eta eguzki-sukaldeak).
- **Eztabaidarako denbora (30 min)**

### GGKEEI ZUZENDUTAKO TAILERRA

**Eguna:** 2013ko urriak 24, asteazkena

**Tokia:** Bilboko Ingeniaritza GET. ISF-MGIren lokala (A eraikina, -2 solairua)

**Ordua:** 11:00-13:00

### GGKEENTZAKO TAILERRAREN PROGRAMA (AURREIKUSITAKO DENBORAK)

- **Programaren aurkezpena (30 min):**
  - Unai Etxebarria. Garapenerako Lankidetzak Bulegoko teknikari arduraduna
  - Sandra Fernández. ISF-MGIko Garapenerako Heziketa teknikaria
- **Ikaslearen ikuspuntua (30 min):**
  - Koldo Redondo. Telekomunikaziotan Ingeniaria, Bilboko Ingeniaritza GETeko ikasle ohia. Bere KAPa azalduko digu: *Diseño de Red Inalámbrica IEEE802.11G para interconectar siete comunidades del río Cayapas, provincia de Esmeraldas, Ecuador.*
- **GGKEaren ikuspuntua (30 min):**
  - Eneko Calle. Bakea eta Duintasuna elkarteko garapenerako lankidetzaren proiektuen koordinatzailea. Bere GGKEak mota honetako KAPak El Salvadorreko erakunde lankideekin koordinatzen izan duen esperientzia zabala azalduko digu, besteak beste: "Microcentral Hidroeléctrica San Antionio" Bilboko IGETeko Industri Ingeniaritzako ikasle batek burutua, "Planta de Tratamiento de Aguas Residuales de Torola" Bilboko ITUEko Ingeniaritza Tekniko Mekanikoko ikasle batek burutua, "Sistema de pasteurización solar de Bajo coste" Eibarko ITUEko Ingeniaritza Tekniko Mekanikoko ikasle batek burutua, "Evaluación de la calidad del agua de las comunidades de la cuenca del río Ostua para el establecimiento de la posible afección debido a la extracción minera" Bilboko IGETeko Ingeniaritza Kimikoko ikasle batek burutua.
- **Eztabaidarako denbora (30 min)**

### IKASLEEI ZUZENDUTAKO TAILERRA

**Eguna:** urriak 24, asteazkena

**Tokia:** Bilboko Ingeniaritza Teknikorako UE. 4.1 mintegi gela

**Ordua:** 19:30-21:00

**IKASLEEI ZUZENDUTAKO TAILERRAREN PROGRAMA**

- **Programaren aurkezpena** (30 min):
  - Unai Villena. ISF-MGIko Garapenerako Heziketa teknikaria
- **Ikaslearen ikuspuntua** (40 min):
  - Jon Vicario. Mekanikan Ingeniari Teknikoa, Bilboko Ingeniaritza Teknikorako UEko ikasle ohia. Bere KAPa azalduko diqu: *Estudio y diseño de unidad de tratamiento de aguas residuales del barrio Molino Belén, en Sololá (Guatemala)*.
- **Eztabaidarako denbora** (20 min)

**Ggke eta irakasleekin gosari-mahai inguruan hitz egindako gaien laburpena****GIPUZKOAKO KANPUSEAN GOSARI-MAHAI INGURUA**

**Tokia:** Donostiako Eskola Politeknikoko 3.6 gela

**Data:** 2013/05/16

**Ordua:** 10:00-12:00

**Parte-hartzaileak:**

- Ana Arruarte, Pilar Arana, Xabier Artola, Olatz Arregi, Puy Arruti, Olatz Azurza, Lourdes Dominguez, Adolfo Maldonado, Lucia Peña, Izaro Basurko.

**Garatutako gaien laburpena:**

Eztabaidan hainbat galdera/proposamen sortu ziren hurrengo bileratan hausnarketarako ekarpen moduan erabili daitezkeenak, edo landu beharreko gai moduan.

- Irakasleen aldetik garapenerako lankidetzaren inguruan trebakuntza gabezia sumatu da; horren inguruko trebakuntzarik antolatu daiteke? Ba al legoke interesdun irakaslerik?
- Gai/beharren zerrenda bat sortzeko aukera Hegoaldeko erakundeek eta GGKEek dituzten beharrekin, GrAL moduan proposa daitezkeenak, proiektu/lan mota hori sustatzeko helburuarekin.

- Lankidetzako GrALetan parte-hartzeko prest dauden ikasleen profilak osatu.
- Unibertsitatean diziplina anitzeko lanak egiteko aukera edota GrALa egiteko (eskola tekniko batzuen artean elkarlaneko proiektuak, edo, baita, psikologiarekin, medikuntzarekin, irakasle-ikasketekin), zer zailtasun aurkitzen ditugu?



**BIZKAIKO KANPUSEAN GOSARI-MAHAI INGURUA**

**Tokia:** Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa.PIG1 gela

**Data:** 2013/05/17

**Ordua:** 10:00-12:00

**Parte-hartzaileak:**

Izena	Saila	E-mail
Adolfo Maldonado	Acción Ecológica Ecuador	salud@accionecologica.org
Aitor Urresti	Máquinas y motores térmicos	aitor.urresti@ehu.es
Alvaro Campos	Máquinas y motores térmicos	alvaro.campos@ehu.es
Amaia Arrinda	Ingeniería de Comunicaciones / ISF-MGI	amaia.arrinda@ehu.es
Estibaliz Martínez	Oficina de Cooperación al Desarrollo	estibaliz.martinez@ehu.es
Fabuer Ramón V	PDL	fabuer@hotmail.com
Gorka Bueno	Tecnología Electrónica	gorka.bueno@ehu.es
Inma Hernaez	Ingeniería de Comunicaciones	inma.hernaez@ehu.es
Jadicha Sow	GEDCE / Utópika (Universidad Politécnica Valencia)	jasowpai@upvnet.upv.es
Jhoni Esim	Electrónica	jhoni20772@yahoo.fr
Joseba Sainz de Murieta	Ingeniería de Sistemas y Automática	joseba.sainzdemurieta@ehu.es
Juan José Anza	Matemática Aplicada	juanjose.anza@ehu.es
Karina Almirón	Comunidad de aprendizaje Santiago Apostol	karina.e.almiron@gmail.com
Koldo Redondo	Ingeniería de Comunicaciones / ISF-MGI	koldoredondo@gmail.com
Mónica Oyarzabal	ISF-MGI	monica.oyarzabal@isf.es
Ortzi Akizu	Expresión Gráfica y Proyectos de Ingeniería	ortzi.akizu@ehu.es
Rikardo Minguéz	Expresión Gráfica y Proyectos de Ingeniería	rikardo.minguez@ehu.es
Rosa Lago	Tecnología Electrónica	rosa.lago@ehu.es
Ruth Pérez	ISF-MGI	ruti_2611@hotmail.com
Unai Villena	ISF-MGI / Instituto Hegoa	unai.villena@isf.es

**Garatutako gaien laburpena:**

Parte-hartzaileen aurkezpenen ondoren, Adolfok eta Jadichak, espresuki gonbidatuak, beraien erakundeetan egiten duten lanaren aurkezpen labur bat egin zuten:

- Jadicha Sow Paino, Valenciako Unibertsitate Politeknikotik datorrenak (honako talde hauen kide da: Grupo de Estudios en Desarrollo, Cooperación y Ética-GEDCE: <http://www.upv.es/contenidos/GEDCE/>; eta Utópika, Ikerkuntza partizipatiboaren diziplina anitzeko sarea: <http://www.utopika.upv.es/>) kontatu zuen nola bere unibertsitateak, UPVek, ikerkuntza-ekintza-partizipatiboa teknika, IEP moduan ere ezagutua (<http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/132>), erabiliz eta KAPen bitartez, Valenciako gizarte mugimenduekin elkarlaneko lotura sortu duten. Ecologistas en Acciónekin elkarlanean Valenciako La Serranian egindako proiektua aipatu zen, hala nola, kontsumo taldeekin eta hirigintza partizipatiboarekin zerikusia duten beste batzuk. Adibide hauen bidez erakutsi zuten nola, ekologia, arkitektura, osasuna eta ekonomia, adibide batzuk aipatzearen, izan daitezkeen GrALen xede gizarte erakundeak unibertsitatera inguratzeko, lekuko gizarte ehuna euskarrizera bideratuz.
- Adolfo Maldonado, Ecuadorreko Acción Ecológica (<http://www.accionecologica.org/>) erakundekoa eta Clínica Ambiental (<http://www.clinicambiental.org/>) proiektuko arduraduna, aipatu proiektuaren zertzelada batzuk eman zizkigun, hala nola, Red de Ecologistas Populares de Ecuador, eta nazioarteko Oilwatch (<http://www.oilwatch.org/>) sareari buruz; bere erakundea elkarlanean aritzen da plataforma hauekin, zeinen inguruan lan bateratuko hainbat ekintza bultzatu dituzten, horietako batzuk Ekuadorreko unibertsitateekin (Ikasleriaren praktikak, ikasketa-zerbitzu jarduerak, ikerkuntza proiektuak, etab.) Adolfok inguratu zizkigun esperientziak sarean egindako prozesu luzeen emaitza dira eta diziplina anitzeko izaera nabaria dute; gure inguru gertuenekoan kosta egiten da diziplina aniztasuna duten lan ikuspegiak aurkitzea benetako ekintza praktikoetan.


Jadicha eta Adolforen azalpenen osteko eztabaidan, beste batzuen artean, ondorengo galderak sortu ziren:

- Gradu Amaierako Lanetatik (GrAL) Karrera Amaierako proiektuetarako (KAP) trantsizioa.
- GHEE berriaren alorrean, MALez gain, Masterreko praktikak bide on bat izan daitezke garapenerako lankidetzan lanak bultzatzeko.
- Orain arte garapenerako lankidetzan egin diren KAPak gehienbat prozesu geldoen emaitza izan dira eta zailtasunez beteak egon dira, beste KAP ohikoago batzuekin alderatuz.
- FORMAKUNTZA ezinbesteko eta beharrezko faktorea da halako KAPetan eta horrela izaten jarraitu behar duela pentsatzen da.



- Elkarkidetza harreman horizontalak eta elkarrekikotasunezkoak sortzea faktore garrantzitsu bat da, baita ere, mota honetako proiektuek aurrera jarrai dezaten.





Mugarik Gabeko Ingeniaritza  
Ingeniería Sin Fronteras

Ingeniería Sin Fronteras País Vasco Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingenieritza

## BILBAO

Bilboko Ingenieritza Goi Eskola Teknikoa (IGET). Urkixo zumarkalea  
z/g. 48013 - Bilbo, Bizkaia Escuela Técnica Superior de Ingeniería de  
Bilbao (ETSI), Alameda Urquijo, s/n. 48013 - Bilbao, Bizkaia  
TELF: 94 601 72 26  
EMAIL: [info.bilbao@euskadi.isf.es](mailto:info.bilbao@euskadi.isf.es)

## DONOSTIA

Unibertsitate Eskola Politeknikoa Europa plaza.1. 20018 - Donostia,  
Gipuzkoa Escuela Universitaria Politécnica Plaza Europa, 1. 20018 -  
Donostia, Gipuzkoa  
TELF: 633 409667  
EMAIL: [donostia@euskadi.isfes](mailto:donostia@euskadi.isfes)